




Jai herrikoiak

gizarte parte-hartzaile, parekide eta jasangarria eraikitzen

- **Merkararitza Iruñerrian** Dendariek euskaraz saldu nahi dute
- **Ihesi** Larrungo trenean, 90 urteko bidaia
- **Andrés Rábago El Roto**, marrazkilari satirikoak «Barretik edo negarretik, guztiak izan behar du analisirako gai»
- **Langileen eskubideak** Borrokan garaile izan diren hiru adibide
- **Jon Sudupe**, saiogilea «Erlijiotik etikara bidea egitea eta argitzea da gakoa»
- **Guk Geure Kulturaz** Premiazko Neurrien Egitasmoa prest du plataformak



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat

160 dokumental baino gehiago ikusgai

Anuken egia
Arrhash, pozoina
Atotxako ikurrina ezkutua
Banlieues. Pariseko erreboltak
Bertsoaren aldagelan
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
CAN: Kutxa hutsa
Debekatuta dago oroitzea
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Erretenak: Y belaunaldia
Espainiako Polizia Euskal Herrian
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskal Selekzioa herri baten ametsa
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Galerna, infernua itsasoan 1912-2012
Gudari baten egunerokoa

Haizea eta sustraiak
Hitz Egin
Ikazkin baten historia
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparralde XXI
Iparra Hegoa - Errotuz zabaldu
Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Isilpeko Lana (Inside Job)
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Kapitalismoa, maitasun istorio bat
Kontseiluak 10 urte
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Lur basatietako bakardadean
Nabarra Boua eta Matxitxakoko guda
Nire bizi osoa espetxean

Nömadak Tx
Oroitarria
Patio Maravillas
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai
Selekzio baten ibilbidea
The Pirate Bay - Teklatutik urrun
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian
Tximeletak, etengabeko metamorfosia
Zerutik sua dator!
Ziztadak

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI BIDEOAK *elkarlanean*





Azaleko argazkia:
DONOSTIAKO PIRATAK
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egilekiz aitoru eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko ekainaren 29a, 2.421. zenbakia

ASTEKO GAIA

JAI HERRIKOIAK Eraldaketa sozialerako tresna.
MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

PERTSONAIA

ANDRÉS RÁBAGO 'EL ROTO': «Irria gehienetan desaktibatzailea iruditzen zaio». SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

PREKARIETATEAREN AURPEGIK Kirola egitea ez dago edonoren esku. LANDER ARRETXE BEREZIARTUA / 15

SALTOKI HANDIAK Mercadona ikur duen herri ereduaren aurka.
JON TORNER ZABALA / 16

KIROLA Emakumeak, joko-eremutik kanporatuak.
JON TORNER ZABALA / 17

IRITZIAREN LEIHOA

GORPUTZ KOLONIZATUAK JUNE FERNÁNDEZ / 18

ESKLABO ZORIONTSUAK IÑAKI ODRIÓZOLA / 20

ZEHAZTEKO ORDUA HELDU DA IÑAKI ANTIGUEDAD / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 19

TXANDAN Utopiak indar-bidean. EDU ZELAIETA / 20

BERTSO BERRIAK Itziariko Auzo Udala.

DENON HERRIA PLATAFORMA / 21

ZIRTA Nola ez ditudan idatzi nire poemetako batzuk.

ANGEL ERRO / 22

ERDIKO KAIERA

GUK GEURE KULTURAZ Neurriak eta erabakiak hartzeko unea.
MYRIAM GARZIA / 24

ARTO ARTIAN Zaratak liluratuta. MYRIAM GARZIA / 26

MUSIKA JOXI UBEDA / 28

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZÁLEZ / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ALEA Galdaran sortutako pastoral. UNAI BREA / 31

IHESI SARA (LAPURDI) Larrungo tren, 90 urteko traizio txikia.
SUSTRAI COLINA / 32

ZIENTZIA UNAI BREA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

JON SUDUPE: «Europar Batasun politikoa ala kaosa, ez dago beste hautabiderik». MIKEL ASURMENDI / 39

LANGILEEN ESKUBIDEAK Arma zaharrak, garaipen berriak, borroka bera. MARIA GONZÁLEZ GOROSARRI / 42

MERKATARITZAKO KANPAINA IRUÑERRIAN Dendariek ere euskaraz nahi dute. EIDER MADINA BERSATEGI / 44

FRACKINGA Eusko Jaurlaritzak atea ireki die zulatzaileei Gasteizko Mendietan. UNAI BREA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL G-77ko herriak alternatibak eraiki nahi eta ezinean.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Eraldaketa sozialerako tresna

Festa parte-hartzaileak, parekideak, jasagarriak eta euskaltzaleak bultzatzen dituzte jai herrikoien aldeko mugimendu indartsuenek. Eurengana gerturatu gara, eskuartean dituzten erronkak konta diezazkiguten. Jai eredu honen aldeko olatua geldiezina da Euskal Herrian, eta zein auzo eta herri bustitzen dituen ere jakin nahi izan dugu.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

JAIA ERRITUARI LOTUTA ageri da gizakiaren historian, eta talde-poza adieraztea dago mui-nean. Hala azaldu digu Markel Ormazabal soziologoak. “Kolektiboki adierazitako pozek askoz indartsuago kohesionatzen dute taldea, edozein ideia, sinbolo edo diskurtsok baino. Egun, ordea, antolatuta adierazten dugun poz hori poz pertsonalaren batuketa soil gisa irudikatzen da sarri, muturreko indibidualismoaren isla. Ez alferrik, gizarte gatazkak jaietan ere errepikatzen dira, jaiak gizartearen zati erauztezin diren heinean. Areago, jaietan agerian geratzen dira gizartean oraindik ere oso sustraituta dauden joera eta mugak”.

Hala, jaiak kontzeptu erabat politikoa dela dio Ormazabalek, komunitateak zerbait lortzeko baliabidea baita politika oinarrian, eta “festek gizartea, komunitatea indartu dezakete. Gizarte zibilaren antolakuntza da bizitza kolektiboaren erai-kuntzarako eta eraldaketa sozialerako bidea, eta jaiak proposak dira horretarako, malgutasun, auto-antolakuntza eta transgresiorako ematen duten aukeragatik”.

Zentzu horretan, kontsumo, hedonismo eta ludikotasun hutsera mugatzen diren jaietatik harago, beharrezkoak dira balio askatzaileak sustatuko dituzten festa herrikoiak. Ormazabalen hitzetan, “herrigintzaren logika, gaur inoiz baino gehiago, kontrajarrita dago dugun gizarte ereduan nagusi den logikarekin. Horrexegatik, auzo eta herriak bizirik mantentzeaz gain, indarrean dauden joera eta balioak eraldatzeko baliatu behar dira herri mugimendutik jaiotako ekimenak: ikuspegi kritikotik landutako jarduera kolektiboak izan daitezen, sortzaileak, antikapitalistak, ez-patriarkalak, autokritikoak, ekologistak, bestelako kontsumo ereduaren aldekoak, kultur anitzak”. Norabide horretan fin dabilta ondorengo kolektiboak.

“Kolektiboki adierazitako pozek askoz indartsuago kohesionatzen dute taldea, edozein ideia, sinbolo edo diskurtsok baino”

Markel Ormazabal, soziologoa

Gora Iruñea: generoa eta eraso sexistak aztergai

Duela 12 bat urte desagertu ziren txosnak Iruñean, “Barcina alkate sartu eta berehala”, dio Xabier Garcia Gora Iruñea plataformako kideak. UPNk etengabe jarritako oztopoei aurre egiteko batu eta 2006an sortu zen Gora Iruñea. Auzoetako jai batzordeek osatua, urtean zehar hainbat jai kudeatzen dituzte eta horiek aurrera eramateko talde iraunkor bat dago, baita Sanferminak eta Iruñeko Eguna antolatzen bideraturiko lantaldea ere. Aurtengo Sanferminetarako jaigunea prest du plataformak.

Jai herrikoien balioak bere eginda, bereziki parekidetasuna ari dira orain lantzen. “Zoritxarrez, gainera, eraso sexista batzuk izan ditugu berriki Txantrea eta Iturrama auzoetako jaietan”, gogoratu du Garciak. Batek, jai parekideak izateak zer esan nahi duen definitu eta irizpideak finkatu dituzte, bai festen egitarauan bai barne-antolakuntzan –jaiak prestatzen dabilzan gizon eta emakume kopuruan– parekidetasuna zaindaz. Bestetik, eraso sexisten gaiari heldu diote. Prebentzioa eta kontzientziazioa sustatu dute, “euskarri ezberdinen bidez ligoteo sana zer den eta zer eraso adieraziz”, eta autodefentsa feminista tailerrak antolatu dituzte, eraso sexisten aurrean nola jokatu azaltzeko. Protokoloa ere prest dute dagoeneko, hogeit bat orriko txostenean jasoa, erasoen aurrean jendarteak zein neurri har ditzakeen eta plataformak hori salatzeko eta horri aurre egiteko zein urrats emango dituen zehazte aldera. Banatzen eta zabaltzen ari diren protokoloa auzoetara ere hedatzea da asmoa. “Iazko Sanferminetan txupinazo unean ater-

Parte-hartzea eta aniztasuna sendotuko dituen antolaketa ereduan murgilduta dabilta Donostiako Piratak (irudian, Abordatzea).



tako eta mundura zabaldutako irudiak lotsagarriak iruditu zaizkigu eta instituzioek ez dituzte salatu ere egin”, kritikatu du Garciak.

EHZ, jasagarritasunaren eredu

Duela hiruzpalau urtetik, beste balore bat indartzeko ere ahalegin handia egin du EHZk: jasangarritasuna. Hogeitik gora komun idor eraiki dituzte adibidez, eta birziklapena eta hondakinen gestioa primeran dute antolatua. “12.000 lagun biltzen dituen jaialdiaren ostean, lurrak eta ingurua aurretik zeuden moduan uztea, eragin ahalik eta txikiena izatea, hori dugu helburu”. Lortzeko egindakoa txosten batean ari dira batzen, “gure esperientzia elikagarri izan dadin beste herri mugimendu eta ekimenetarako”. Halaber, bertako ekoizleen janaria banatzen dute jaialdian, kalitate onekoa eta herritar guztien diru-poltsei egokitu. “Bertako ekoizleen produktuekin hainbeste laguni jaten ematea izugarritzeregina da eta hasieran zaila izan zen sartzela, baina lortu dugu eta oso positiboa da, inguruko ekonomia biziarazteko aukera paregabea”. Horrez gain, aurtten, jai herrikoien

aldeko beste hainbat kolektiborekin elkarla-
nean, bi txosna mugikor eraiki dituzte, Euskal
Herriko ekitaldi batetik bestera eraman dai-
tezkeenak. Festibaleko zurgin batek egin ditu
planoak, eta auzolanean burutu dute dena.

Bilboko Konpartsak, ekonomia soziala bultzatzen

Ekhi txanpona erabiltzea da Bilboko Konpartsen aurtengo erronka. Ekonomia soziala oinarri duten erakundeekin eta bertoko ekoizleekin harremana sendotzen ari dira

tza Fundazioak proposatuta), edo eraso*i* aurre egiteko neurrietan. Eraso sexistak nahiz xenofoboak edo arrazistak, jaiak guztientzat direlako. Denon integrazioa modu positiboan nola gauzatu garatzen hasi gara; etorkin elkarte bat ere etorri zaigu konpartsa bat sortzeko asmoz eta horrek erraztuko du, ziurrenik, ildo horri serioago heltzea”, kontatu du Villafañezek.

Ekhi Bizkaiko txanpona erabiltzea izango da aurtengo apustua, bertako ekonomiaren alde. “Ekonomia soziala bultzatzen duten erakundeekin eta bertoko ekoizleekin harremana sendotzen ari gara. San Joan jaian banatzen dugun txokolatada egiteko, esaterako, bidezko merkataritzatik lortutako txokolatea eta Esnetik Kooperatibaren esnea erabili



ditugu”. Esnekiak ekoizteko eta kontsumitze-ko irabazi asmorik gabeko kooperatiba mistoa da Esnetik, Aiaraldeko eta Durangaldeko baserritarren esku.

Donostiako Piratak: auzolan erraldoia

2003an Donostia abordatzea erabaki zutene-
tik, hiriko jai eredua biratu dute Piratek. Aurre-
tik aipatu ditugun baloreak bere egiten dituzte,
besteak beste Zero Zabor filosofia, autoges-
tioa, parekidetasuna, euskalduntasuna... eta
espiritu kritikoa (Irrikitaldia herri-parodian
ikus daitekeenez). Aitor Alberdi Piraten koor-
dinatzailearen arabera, auzolana da duten
altxorrik handiena: “Gure jaiak auzolan erral-
doi baten isla dira. Bakoitzak ahal duen neu-
rrian laguntzen du, boluntarioki, Aste Nagusia
aurrera ateratzeko, eta jaietatik harago doan
tresna da gainera. Adibidez, Martutenen uhol-
deak izan genituenean, beste herri mugimen-
duetako kideekin batera auzoa garbitzera joan
ginen, auzolanean”.

Egun, parte-hartzea eta aniztasuna sendo-
tuko dituen antolaketa ereduari dute jarritako
arreta. Hala, hemendik aurrera Kofradiak
izango dira Donostiako Piraten baitan herri-
tarrak antolatze eta egitaraua osatzeko sub-
jektua: auzoz auzo eta taldez talde, jendea
kofradietan biltzera deitu dute (dagoeneko
zortzi kofradia osatu dira), mugimendua aha-
lik eta gehien hedatzeko eta ahalik eta donos-
tiar gehienek izan dezaten erabakitze eta
eragiteko aukera. “Aste Nagusi Pirata ezberdi-
nen arteko elkarlanaz osatutako jai gisa uler-
tzen dugu, egitarau ugariz osatutako egitarau
handi bat. Kofradiei esker gerturatzen ari den
jende eta aniztasun honek guztiak mugimen-
dua elikatzen du, eta baloreei eta jai ereduari
buruzko eztabaida denon artean garatzen joa-
teko baliagarria zaigu”, azaldu du Alberdik.

**Goitik behera, ezker
eskuin: Gora
Iruñearen jaigunea,
Gasteizko Blusak eta
Neskak (Gasteiz
Hoyren argazkian),
Bilboko Konpartsak,
eta EHZ.
Esperientziak
partekatu eta
elkarlana sustatzeko,
hiriburuetako jai
batzordeen bilgunea
sortu zen duela bost
urte.**

Gasteizko Blusak eta Neskak, gizarte-laguntzarako tresna

50eko hamarkadan sortu eta urteetara emaku-
meen parte-hartzea gehitu ostean, Gasteizko
Ama Zuriaren jaietako arima dira Blusak eta
Neskak. Iaz, 24 koadrilen artean Udalak egita-
rauan txertaturiko 30 ekitaldi baino gehiago
antolatu zituzten. Kritika politikoa, kulturala,
soziala... ez da falta pankartetan, eta koadri-
lek aniztasuna dute ezaugarri; bakoitzak bere
independentzia mantentzen du.

Sozialki egiten duten ekarpena nabarmendu
nahi izan du Luis Izaga batzordeko presiden-
teak: “Proiektu ugari laguntzen ditugu, minbi-
zia duten umeez arduratzen den Aspanafoha,
etorkinei babesa eskaintzen dien elkarte gas-
teiztar bat, aterpetxerik ez dutenekin dihardu-
tenak... Ekitaldiren bat prestatzen dugu esate-
rako, eltzetsua jarri eta bildutako dirua
haientzat. Pintxo solidarioa ere egiten dugu”.

Gasteizko festetan, azkenik, ezin ahaztu 30
urte pasatxo herri mugimenduen ordezkartza
biltzen daramaten Gasteizko Txosnak. Jai
giroan, esparru ugari ukitzen dituzte: ikasle
mugimendua, komunikazio alternatiboa, inter-
nazionalismoa, borroka feminista, euskararen
defentsa, errepresioaren kontrako jarduna...
Guztira 13 kolektibo eta 12 txosna dira.

Euskal Herrian festa herrikoien alde
lanean ari diren elkarte hauek guztiak ez
dabiltza bakarrik. Esperientziak partekatu eta
elkarlana sustatzeko, hiriburuetako jai batzor-
deen bilgunea sortu zen duela bost urte. Lan
tinko eta emankorra egiten ari direnik ezin
uka, “bestelako gizarte bat sortzeko tresna
interesgarria direlako jai herrikoiak –dio Pira-
tetako Aitor Alberdik–, eta horren isla da
hainbat agintarik jai eredu honen aurka buru-
tzen dituzten erasoak”. Guztia, jakina, algar-
a, lagunak eta giro ona tarteko.



Parrandaz gain...

Balore aurrerakoia

Jaiakbultzatuz.eu webgunean, festa herrikoien eredua eta baloreak bultzatzearen aldeko manifestuarekin bat egin dute hainbat erakundek, elkartek, pertsonak (ezagun askok) eta **75 jai batzorde** inguruk, tartean orriotan dagoeneko aipatu ditugun gehientsuenek eta honako herri eta auzoetako jai batzordeek: Gasteizko Txagorritxu, Aranbizkarra eta Adurtza, Kanpezu, Aguraingo txosnagunea, Lau-dioko txosnak, Amurrioko Korroska txosnen batzordea, Aramaio, Izarra, Abornikano, Goiuri, Oiardo, Urbina, Zalduondoko Txispak, Barrundiako Gazte Batzordea, Bilboko Santutxu, Uribarri, Errekalde, Altamira, Buia, Solokoetxe, Zorrotza, Zurbaranbarri eta Deustuko Erribera eta Zorrotzaurreko Txitxardin jai batzordea, Ajangiz, Gernika-Lumo, Itzubaltzeta (Getxo), Algorta (Getxo), Sopela eta Larrabasterrako txosna batzordea, Santurtziko txosna gunea, Santurtziko Mamariga eta Kakul Kabiezes, Barakaldoko txosna batzordea, San Bixente (Barakaldo), Astrabudua, Basauriko txosna batzordea, Arrigorriagako txosna batzordea, Ugaoko txosna batzordea, Zeberio, Maritxu Teilagorri Leioako txosna batzordea, Foru, San Gabriel (Trapagaran), Erandio, Arrasateko Maritxu Kajoi eta Santamas komisiñua, Donostiako Amara Berri, Intxaurrondo Zaharra eta Gros, Donostialdeko auzo eta herrietako jai koordinadora, Oretetako txosna komisia, Iruñeko Alde Zaharra, Donibane, Etxabakoitz, Sanduzelai eta Errotxapea, eta Antsoain.

Alternatiba

Barañainen txosna gunea jartzeko Udalaren oztopoak jasan izan ditu herriko jai batzordeak, baina urteak daramatza festa herrikoien aldeko lanean. Aurtengo herri programa hamarnaka kolektiboren artean prestatu dute eta kamisetak jarri dituzte salgai, bizilagunek osatutako batzordearen egitaraua diruz laguntzeko.

Baionako Besta Alternatiboak prestatzen ditu Gazte Asanbladak, beste hainbat kolektiborekin elkarlanean.

Lasarte-Oriako Udalaren Sanpedrotako jai egitarau zurrinari alternatiba eman nahian, herritarrek Sorgin Dantza indartu zuten duela urte batzuk. Egun, dantza horren bueltan sorturiko Sorgin Jaiak egiten dituzte herrian.

Kritika eta parodia

Baztandarren Biltzarrak oztopo ugari jasan ditu bere historian, 1963an jaio zenetik, baina bizi-bizi jarraitzen du. Baztango herritarren bilgune izan nahi duen festa honetan, gurditan ateratzen dira, eta eskualdeko bizilagunen kezka eta aldarrikapenak adierazteko erabiltzen dituzte gurdioak. Urtean zehar, bestelako kultur jarduerak ere antolatzen dituzte Baztango herrietan.

Uztaritzen ospatzen den **Lapurtarren Biltzarrak** ere, aukera ematen die lapurtar gazteei elkar hartu eta gurdi ibilbidearen bidez dituzten arrangura eta aldarrikapenak plaza publikora ekartzeko. 1979an sortu zen besta.

Santa Ana jaietako parodia egiten dute **Lasarte-Orian**, urtean zehar herrian gertatutakoa modu umore-



Auzo giroa

Bilboko hainbat auzotako jai batzordeen elkarlanetik sortu zen **Auzotarrok** mugimendua, 2000. urtean. Herri jaien antolakuntzan izan ditzaketen behar eta arazoei erantzun bateratu eta koordinatua ematen, azpiegiturak partekatzen, kalitatezko kultur eskaintza zabalagoa ahalbidetzen edota auzoetan jai herrikoia bultzatzen dihardu ordutik.

Zaharraz harro jai autogestionatuak egiten dituzte **Gasteizko Alde Zaharrean**, *Jaiak eta aldarrikapenak Alde Zaharra bizi* lelopean.

Nortasun handia duten edota jaietan eredu herrikoia bultzatzen duten auzoak asko eta asko dira Euskal Herrian. Horien adibide dira, esaterako, **Errekaleor** auzoko festak (Gasteiz), **Bagatza-Beurkokoak** (Barakaldo), **Moskuko** Besta autogestionatuak (Irun), **Egiako** Porrontxoak (Donostia), Iruñeko **Txantrea** edo **Arrosadiakoak**, **Azken Portu** (Zarautz), **Abetxuko** (Gasteiz)...



BAZTANGOHAIZEGARENARGAZKIAK

tsu eta kritikoa jorrazteko epaiketa antzeztua. Epai-leek, Santa Anak, San Joakinek, Basajaunek eta lekukoei hartzen dute parte eta 64. edizioa du aurtengoa.



ASIER PEREZ-KARKAMO / O. B. HITZA

Herri olinpiadak

Hernanin, 1988. urtean egin zuten lehen edizioa, herriko gazteak harremantzea, euskara sustatzea eta bestelako aisialdi eredua eskaintzea helburu. Edizio gutxi egin zituen, baina 2010. urtean berreskuratu dute herritarrek ekimena eta indartsu mantentzen da, jolas kooperatiboen bueltan.

Hondarribian, 1980ko hamarkada bukaeratik 1996ra arte iraun zuten olinpiadak. Aurtan abiarazi dituzte berriro, koa-drilen arteko lotura indartzeko eta jendea lokaletatik kalera ateratzeko xedez. Izan duen arrakasta ikusita, bigarren edizioa ziurra da.

Aldarrikapena

Lizarrako Festa-Giro jai batzordeak sustatuta, festa herrikoien aldeko aldarria eta hainbat ekin-tza burutu dituzte aurtan bizilagunek, herriko Puy auzoko jaietan UPNk txosnak jartzea galarazi duelako.

Irunen, *Jaiak herrian*, ez *Ficoban* lelopean, Sanmartzialetako jaigunea Mosku hirigunetik Ficoba eraikineran eraman izana salatu dute herritarrek. Udalak iritziz aldatzea ez dute lortu, eta egitarau alternatiboa prestatu dute *Irungo jaietan Mosku bizirik!* mantentzeko.

Erandion ere txosnak berreskuratu nahi dituzte Sanagustinetan. Duela urte batzuk, Udalak herrigunetik Tartangara aldatu zituen eta aurtan, enegarrenez, jarrerara aldatzeko eskatu diote biztanleek, *Txosnak herri erdira!* kanpainaren bidez. Toki alternatiboa ere proposatu dute.

Aniztasuna

Duela sei urte jaio zen Lonjero Eguna **Trapagaranen**, gazteak lokaletatik atera eta elkarren artean ezagutu zitezten. Herriko ekimenetan gazteriaren parte-hartzea handitzea, gizarte sarea indartzea eta herritarren nahasketa eta aniztasuna lortu ditu ekime-nak. Ekainean ospatzen dute.

San Fausto jaiak abiapuntu hartuta, jendea lokaletatik atera eta kaleak gaztetzeko helburuz jaio zen, baita ere, **Durango**ko Zapaburu konpartsa. Urte osoan antolatzen dituzte ekitaldiak.

Jatorri aniztasunaren inguruan eta aniztasun horrek euskal gizarteari dakarkion aberastasunaz hausnartzen du **EH 11 Kolore** elkarteak. Lan-keta horren baitan, jai propioak antolatu ditu (Donostian edo Iruñean, adibidez), eta hainbat festetan hartu du parte, aniztasuna aldarri (EHZ edo Euskal Eskola Publikoaren Jaia lekuko).



G. IROZ / KAZETA.INFO

Euskara

Tuterako Beterri peñak “Erriberako panorama euskaltzalean erreferentzia” izateko egiten du lan.

Euskaraz besta egin nahi dut lelopean, jaietan euskara bultzatzeko moduak lantzen ari dira **Ipar Euskal Herri**ko hainbat besta komitetan, tartean Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak helarazitako neurriak eta txostena baliatuz.

Ingurumena

Amikuzen dago Bizi Toki baserria, eskolaren alternatiba izan nahi duen proiektu pedagogikoa, eta bertan antolatu ohi dituzten jai eta ospakizunak inguruari eta lurrari oso lotuak egoten dira. Horren lekuko, basalandareen inguruko *Sorginen biltzarra*, hazien ezagutza eta ekoizpenari buruzko *Hazitik bazira*, eta erlezaintzaz antolatutako *Erlezaleen biltzarra*.

Feminismoa eta askatasuna

Jai ugaritan parte hartzen duen **Legazpiko** Sustraiak Dantza Taldeak gogoren eta beharraren arabera tartekatzen ditu neska-mutilak dantzetan, ez rolaeren arabera. Mutilen dantzatzat hartu izan direnetan ere (Ezpata dantza, esaterako), neskak aritzen dira.

Sagardo denboraldian, kaleetan festa feminista zabaltzen ibili ohi da **Hernaniko** Brigada Feminista, baita “nazkanterik, babosorik eta maromorik gabe” espazioak aldarrikatzen. Berdin **Baionako** bestetan; bertan poteo feminista antolatzen dute PAF eta Altxa Neskak talde feministek.

Zarautzen, herriko festetan sexualitatea, harremanak, ligoteo osasuntsua... jorratzeari eskaintzen diote egun bat, eta horretarako, urteotan muxu-katea, lesgaytrans antzezlanak, Gona Festa (txosna gunera denak gona jantzita gerturatzerako gonbidatuz, genero rola puskatzeko), manifestazio koloretsua... egin dute.

Akelarrea festa askatzailea da –sarri baita sexu joerei dagokienean ere–, kritikoa eta transgresorea. Besteak beste, Hernanin, **Leioan** eta **Barañainen** egiten da, eta **Zugarramurdi**n, Sorginaren Eguna.

* Daudenak badiren arren, ez daude diren guztiak. Interneteko bertsioan gehitu ditzakezu aipatu ez ditugun jai herrikoiak. ■



EH BILGUNE FEMINISTA



ANDRÉS RÁBAGO EL ROTO

«Irria gehienetan desaktibatzailea iruditzen zait»

“... ustelak lurpera, bizitza da handiena, galtzea litzake galtzea dena...”

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Denek marrazten dugu txikitan...

Eta zergatik ez handitzean? Zergatik galdu ohi da marrazteko grina eta artea bidean? Nik txiki-txikitatik erabili dut lapitza eskuan, oso umetatik heldu nion marrazki satirikoari. Bakoitza mundura zeregin konkretu batekin sortzen dela sinesten dutenetakoa naiz. Neurea oso goiz topatu nuelako, agian. Ez dut sekula deus erabaki, zirkunstantziek eraman naute batetik bestera. Oztopoak saihesten saiatu naiz, bazterra ez jotzen ahalegindu, nire burua ur-azalean mantentzeko borrokatu naiz, baina beti jarraitu diot bizitzaren korronteari. Zortekoa naiz, ez dut sekula mundura marrazteko sortu ote nintzen kolokan jartzeko besteko zailtasunik aurkitu. Ibai guztietan bezala, egon dira urak geldi-geldi zeuden sasoiak, emari bizi-biziko aroak, baina korronteak seinalatutako norabideari jarraitu diot beti.

Frankismopeko urak derrigorrez dira nahasiak artista satiriko batentzat?

Diktadurek beti dauzkate ezpatak zorrozuta, mingainak zein eskuak mozteko prest, baina ez nuen zailtasunik izan. Aise intuitu nuen etor zitekeena, eta eroso mugituko nintzen espazioen bila, politikarekin tematuta ez zeuden aldizkari kulturaletara jo nuen. Horixe agintzen zidan barrenak eta horren arabera sailak eskaintzen zizkidaten. Lengoia mutua eta oso bisuala nerabilen, interpretatu beharreko kodez josia, zentsuratzen gaitza. Frankismoa pasata ohartu nintzen zinez zer zen diktadura. Ordura arte, horixe zen zegoena eta kito.

“Koloreztatzeagatik koloreztatzeari ez diot zentzurik ikusten. Austeritatea, hitzaren oinarritzko zentzuan, arlo guztietan da baliotsua”

Horregatik, ez naiz sekula preso sentitu, beti kausitu dut esan nahi nuena esateko modua.

Eta frankismo ostean? Zentsura aferak zeresana ematen ari dira.

Demokraziaren lehen aroa eferbeszentzia sasoi bat izan zen. Orain baino askoz irekiagoa zegoen dena, orain baino libreagoak ziren espirituak. Orain jendea sailkatuagoa dago, etiketatuagoa, bakoitzak zaindu behar du bere parrokia, baina orduan dike guztiak puskatu eta alde guztietara isurtzen zen ura. Hori hala, zaila da zentsura zein autozentsuraren lanak neurtzea. Nik beti jarri dizkiot mugak nire buruari eta muga horien baitan dantzatu dut eskumuturra. Beti ahalegindu naiz edukatua izaten, ez naiz probokazio bila ibili, egoeraren ulermenara bideratutako komunikazioa hobetsi dut. Esaterako, irria ez da ezinbestekoa niretzat. Are gehiago, gehien-gehienetan desaktibatzailea iruditzen zait. Hori bai, barretik edo negarretik, guztiak izan behar du analisirako gai. Hor ezin liteke zentsurarik egon.

Marraztu ezazu zure burua.

Bizi dugunaren ikuskatzailea naiz, obserbazioaren transkribatzailea. Hori da marrazkilariren sena. Gero bakoitzak dauka bere begiak, munduari begiratzeko bere kokapena, bizkarrean daraman motxila... Erabateko neutraltasuna ezinezkoa dela jakinik lantzen da neutraltasuna. Ez naiz profeta, pentsamendu pertsonalez jositako begirale neutroa baizik. Gutxi gehiago, denok dakigu zer ari den gertatzen, gure sasoiako espirituak zein den. Gauza



NORTASUN AGIRIA

Andrés Rábago. 1947an Madrilén sortutako marrazkilari satiriko autodidakta. 1968an argitaratzen hasi zenetik, ezizen zenbait eta medio andana pasa ondoren, 1990etik hona *El País* egunkarian argitaratzen ditu marrazkiak 'El Roto' ezizenarekin. Bere lanen bildumekin osatutako 20 liburu baino gehiago dauzka (azkenak, *Oh la l'art* eta *A cada uno lo suyo*), eta 2012an Espainiako ilustrazio sari nazionala jaso zuen.

zenbait ezkutatu ala gure arreta desbideratzeko interesa egon arren, gehien-gehiena begi-bistan dago. Horregatik, begi-bistan dagoena ikustea da nire eguneroko borroka. Horretarako oso interesgarria da iraganetik edo etorkizunetik begiratzea orainaldiari. Beste territorio batean kokatu eta gauzak izango diren edo izan ziren bezala ikustek pista asko ematen ditu bizi dugunari buruz.



Zer harreman duzu aktualitatearekin?

Aktualitatea ez zait interesatzen. Egunkariak irakurtzen ditut, badakit zer ari den gertatzen, baina ez dut uste dekantatzen utzi gabe gauzen neurri eta garrantziaz jabetu litekeenik. Gertatzen ari dena itsu-itsuan jarraitzen duenak, nekearen nekez mingaina ahoan kabitzen ez zaiola amaitzen du, eta itota nola

esan liteke taxuzko ezer? Horregatik, aktualitatea ez, orainaldia da interesatzen zaidana, eta ez orainalditzat aurkezten digutena, zinezko orainaldia baizik. Informatzeko modu onena isiltasuna dela ulertu behar dugu. Isiltasunik gabe ezin duzu ingurura soseguz begiratu, ezin diozu zure buruari kasu egin. Inguruko zaratak ez dizu gauzek zure baitan duten oihartzuna aditzen uzten. Zarata interesatua dela? Ados, baina nik ardura pertsonalean sinesten dut, eta bakoitzak jakin behar du zalaparta ateratzen duten tresnak nola erabili, noiz piztu eta noiz itzali. Aurkako interesak egoteak ez gaitu gure arduretatik salbuesten. Pertsonak gara, ez makinak.

Pertsonak aurpegia izaten du, eta zure marrazkietako pertsonen aurpegiak ez dira inoiz garbi ageri. Zergatik?

Teknika bat da, hautu bat. Ez zait gauzak aurpegi batekin lotzea gustatzen. Egoeren ardurak pertsona jakinekin lotzen baditugu pertsona horiek desagertzean afera konpontzen dela sinestera iristen gara. Hori ez da hala. Pertsona horiek momentuko txotxongiloak dira, momentuko aktoreak. Niri gidoia eta gidoilariak interesatzen zaizkit, aktoreak bost axola! Aktore bat gaixotzean, aktorez aldatzen dute, baina gidoiak jarraitzen du. Horregatik uste dut identifikazioak nahasten gaituela. Gainera, denbora eta nire aroa zeharkatzeko anbizioa



daukat. Ez nuke nahi orain egiten ari naizena bihar ez ulertzea pertsonaia bat nor den inork ez dakielako. Bihar nor oroituko da Rajoyz, Botinez, Zapateroz edo Juan Carlos erregeaz? Inor ez. Artearen edo plastikaren sena duzun unetik duzu denboran irauteko borondatea, eta egoerek aurpegiek baino askoz hobeto zeharkatzen dute denbora.

Zure artearen senak apenas eskatzen dizun kolorerik.

Espirituaren erabateko liberazio nahiak narama, eta koloreak beti gozatzen du edukia. Zuri-beltzaren edertasuna planteamendu bat da bere osotasunean. Uneak eskatzen badit edo plastikoki funtzionatzen badu, tartekamarteka kolore tanta bat eransten diet marrazkiei, baina koloreztatzegatik koloreztatzeari ez diot zentzurik ikusten. Austeritatea, hitzaren oinarritzko zentzuan, arlo guztietan da baliotsua. Ene iduriko horixe da eskas eta behar duguna. Austeritatea ez da pobrezia. Austeritatea kontsumo sistema honi kontra egitea da, hormaren aurka garamatzan kamioiari norabidea aldarazteko modua.

Zer aldarazi nahi duzu zure zintetan animaliak eta landareak humanizatuz?

Izaki bizidunak, arimadunak, humanizatzea ez da bekatua. Bortxa jasanezina zaidanez, etengabe enpatizatzen dut animalia eta landareekin. Gaizki tratatu duten animalia bat jaten dugunero irensten dugu bortxa hori. Landareei produktu toxiko bat botatzen diegunero


kaltetzen dugu gure burua. Animaliak zein landareak humanizatzea gure ingurua aintzat hartzeko aldarrikapena da. Gure inguruarekin bakean al gaude? Gure izateak ba al du zentzurik inguru horretatik kanpo? Metatzen ari garen inguruarekiko zorrak nork kitatuko ditu? Politika edo debate filosofiko handiustekoetara dedikatzen den inteligentziak horretaz ere arduratu behar luke. Hori da guztiaren oinarria.

Zure bineten oinarrian testua eta marrazkia daude. Zein da bien arteko harremana?

Harremanak orekatua behar du. Ezin liteke testu bikaina marrazki eskasarekin ezkondu, ezta alderantziz ere. Biek eskatzen dute arreta, biek kalitatea. Horregatik bilatzen dut testuan marrazkian bilatzen dudana soiltasuna. Oso hausnartua dago dena, ezinbestekoa soilik agertu dadila, ezer ez soberan, deus ez faltan. Austeritatea marrazkian, austeritatea testuan, austeritatea bizitzan. Esaterako, kontzienteki baztertzen dut tratamendu digitala. Bilaketa zein artisau-lanketa hobesten ditut, igarri dadila eskua. Argazkiak errebelatzen diren gisan bihurtzen dut buruan dudana planteamendua marrazki. Paperean hartzen du zentzua eskuak. Papera eta eskua ukatzen dituen oso hotza da nire gusturako.

Papera eta eskua, prentsaren geroaz ari zarela dirudi.

Papera desagerrarazi nahi duten susmoa dut. Papera dokumentua da, testigantza. Bestela-



koak erraz aldatu litezke, azkar ezabatu, arrasto gutxi uzten dute... Baina munta handiko aferek papera eskatzen dute. Hori hala, hedabideak oso gaixo daude, jendarte oso gaixo dagoelako. Medioen sendabidea sendabide sozialetik etorriko da, eta sendabide pertsonalak soilik ekar dezake sendabide soziala. Beti uzten ditugu erruak eta ardurak besteen-tzat, beti seinalatzen dugu auzokoa. Arazoa zein den esan behar digute, konponbidea aurkeztu, norabidea markatu... Ez al luke bakoitzak bere munduaren jabe izan behar? Gure buruaren, munduaren, eta maitasun zein gorrotoen jabe izateak sendatuko gaitu. Hortik datoz soluzio guztiak. Prentsari dagokionez, segur aski dauzkagunak baino medio gutxiago beharko genituzke. Hobeto ikusiko genuke arazoen aurrean nola jokatu, non eta

"Ezin badugu horizontea aldatu, alda dezagun ikuspegia", dio elroto-rabago.com webgunetik hartutako bere binetak.

nola izan dezakegun eragina, zein den gure kokapen egokiena. Ezer izatekotan, bitartekariak dira medioak, eta bitartekari gehiegi izatea txarra da denetan. Gauzenganako eragin zuzena lortuko bagenu bitartekariak ez leudeke soberan, baina ez lukete inondik inora egun duten garrantzirik izango. Alabaina, horrek ez du esan nahi kazetaritzak ez duenik gerorik. Kazetaritza informazioa da eta informazioa beti izango da beharrezkoa. Zer balio du ordea informazio saturazioak, galbaheko gaitasunik gabe?

Zure lanak argitaratzen dituen *El País* egunkariak ez ditu garai onenak bizi. Nola eragiten dizu horrek?

Ez dut nire burua egunkarian kokatzen. Ez naiz lan egiten dudako medioan inplikitzen,



Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Prentsako argazkiak

"Oso garrantzitsuak dira, informazio asko ematen dute. Batzuetan, testuak gauza bat dio eta argazkiak kontrakoa. Bestetan, osagarriak dira. Ezinbestekoa zait bien arteko jolas hori. Ez al dira argazki-lariak irakurleon begiak? Zoritxarrez, prentsa idatziak, oro har, ez du argazkia behar bezala zaintzen, ez dio behar besteko garrantzirik ematen".



egiten dakidan horretan onena ematetik harago. Ez noa erredakziora, ez dakit zer egosten den bertan, ez dakit nola funtzionatzen duen egunkari batek. Nik nire estudioan egiten dut lan, bertatik begiratzen diot munduari. Goizetan egunkariak irakurri eta interesatzen zaidanari buruzko notak hartzen ditut, begiz jotako argazki pare bat moztu, eta pintatzen edo bisitan etortzen zaizkidan lagunekin hizketan egoten naiz. Bazkalostean, bidea egin duten ideiak aztertu, indarra zerk duen erabaki, eta marrazten hasten naiz. Marrazketa saioa bukaturik, senak eta egoerak eskatzen didatenaren arabera deliberatzen dut biharamunean zer argitaratuko dudana. Izan liteke duela sei hilabete egindako bat edo arratsalde horretan bertan borobildutako azkena. Eguneroko errutina metodiko hori da nire eskola, onerako eta txarrerako.

Gauza bera marraztuko zenuke *El País*-en, *El Mundo*-n, edo *ABC*-n?

Zuretzat gatazkatsua ez den medio batentzat lan egitea da logikoa. Etengabe haize- kontra marraztu behar baduzu, goiz ala berant, lehertu egiten zara. Hala, medioak zure askatasuna onartu eta errespetatu behar du, zure ustez egin behar duzuna egiteko modua eman behar dizu, ez dizu esan behar honi buruz bai eta honi buruz ez, ez dizu gairik

jarri behar... Ez dut sekula halakorik onartu, ezta onartuko ere. Gai bat eman didaten aldiro berehala gogaitu naiz zer esango nukeen pentsatzen. Airean presente dagoen edozeri buruzkoa izanik ere, zure baitatik atera behar du marrazkiak. Ez dut kanpotik behartutako bulkadetan sinesten.

Hil arte irauten al du artistaren bulkadak? Ez al da inoiz erretiratzen?

Ez erretiratzea da ohikoa, lanean hiltzea. Beti ikasten ari zarenez, beti daukazu zer marraztua, hortik lapitza eskuan hiltzeko desira. Agian egun batez medioak ez dira existituko, bota egingo naute, inork ez dit libururik argitaratu nahiko, baina inork ezin go dit galarazi niretzat pintatu eta marrazteko plazera. Horregatik ez nau arduratzen argitaratzeko espaziorik gabe gelditzeak. Bitartean, orain arte bezala, korronteak markatzen didan norabideari segituko diot, nire maila gorenari eusten ahaleginduko naiz, egunero zerbait ikasiz, lengoaiari ateak irekiz. Ezinbestekoa iruditzen zait lengoaia satirikoari bidea eman izana. Zaharkitua zegoen, lizundua, eta pixkanaka gaitasun espresibo osoa hartzen ari da. Adierazteko forma berriak aurkitzea da bidea. Horrela soilik egin liteke denok amestu eta sekula iristen ez den maisu-lana. ■





- Abentura kirolak
 - Ezkonaurreko agurrak
 - Familiarteko jarduerak
 - Abentura bidalak
 - Material tekniko alokairuak
 - Eta askoz gehiago...

San Juan 18. Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635.748.948 - 635.748.947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com




Kirola egitea ez dago edonoren esku

Iker Fernandez dut izena eta 22 urteko donostiarra naiz. Lau urte dira ostalaritzan lanean hasi nintzela, eta horretan dihardut oraindik, ikasketekin eta nire zaletasun nagusia den triatloiarekin jarraitu ahal izateko.



BADAKIT asko direla langabezia daudenak edota ez dutenak etxebizitzarik; nire kasua ez dago eurenarekin alderatzerik. Baina horren egoera larrian ez gaudenontzat ere zaila da gure bizi proiektua gutxieneko egonkortasunez eraikitzea. Gazteon artean oso normalizatuta dagoen arren, prekariedade da hori ere. Nirea adibide bat gehiago da, ez besterik.

Kirola zaletasun izan dut beti, eta ikasketak ere horretara bideratu nituen. 16 urterekin hasi nuen kirolarekin lotutako erdi mailako zikloa, eta amaitzean goi mailakoa ere egin nahi nuen. Tamalez, izen-ematean egindako akatsa medio, ezin izan nuen sarrera proba egin, eta 18 urte nituela, ikasketak eten behar izan nituen.

Handik gutxira, urtebetez ikasterik izango ez nuela ikusita eta nire gastuak nik neuk ordaindu ahal izateko, taberna batean hasi nintzen lanean. Geroztik, azken urteetan ostalaritzan aritu naiz beharrean, hainbat lekutan, etenaldiren bat edo beste tartean.

Hala ere, etorkizunean ez nuke ostalaritzan lan egin nahi: helduentzako batxilergoa ari naiz egiten orain, amaitzen dudanean Kirolen Zientzietako Gradua ikasteko. Gasteizen baino ez dago gradu hori ikasteko aukera ordea, eta hara joateko ere dirua aurreztu beharko nuke. Horrenbestez, ikasten jarraitu eta urte batzuk barru entrenatzaile edo kirol hezitzaile gisa lan egin ahal izateko, egungo lanarekin jarraitu behar dut; baina aldi berean, lan egin behar izateak zailago egiten du ikasketak aurrera eramatea.

Ekuazio aldrebes xamar horri nire zaletasun nagusia gehitu behar zaio: triatloia. Hiru bat urte dira entrenatzen eta lehiatzen ari naizela, eta prestaketa lan handiaz gain, dirua ere eskatzen du. Inoiz gutxitan aipatzen da, baina kirola ere ez dago edonoren esku. Material duina eta izen-emateak tarteko mila eurotik gora behar dira denboraldi bakoitzeko. Hortaz, triatloiak ere lanean jarraitzera behartzen nau.

Orain udara dator eta errazagoa izango da, baina normala denez, zaila da hori guztia uztartzea, denbora aldetik batez ere. Gainera, oraindik ez dut aipatu denetan garrantzitsuenak: giza harremanak. Familia, lagun, bikote eta abarrentzat nahi beste denbora izatea ez da erraza izaten, eta maiz haien lanaldiekin zerikusirik ez duten ordutegiak izaten ditut.

Esan bezala, ez da erraza elementu horien guztien artean oreka lortzea, eta etorkizuna beti kolokan izatea ere ez da atsegina, baina egun daukadan lana nik nahi dudana bidea jarraitzeko tresnatzat ulertzen dut, eta hori bada nahikoa motibazio. Espero dut hemendik urte batzuetara kirolarekin loturiko lanetan aritu ahal izango dudala, bidean triatloiaz eta ingurukoez gozatuta; eta horrela ez bada, ez dadila izan saiatu ez naizelako. ■



Mercadona ikur duen herri ereduaren aurka

Barañainen, herrian ireki nahi duten Mercadona saltoki valentziarraren aurka mobilizatu da bizilagun talde bat. Sestaon, haserrea eragin du hiri-antolamendu plana aldatu eta supermerkatuari lursail publiko bat saltzeko Udalak duen asmoak.

| JON TORNER ZABALA |

MERCADONAREN proiektua “inposatu” duten Barañaingo UPN, PSN eta PPko udal ordezkarien herri eredia gogor kritikatu du bizilagun taldeak: “Eztabaidari muzin egin diote, auzokideen hartu-emanen aurrean harreman komertzialak sustatu dituzte, bertoko produktuei baino, inportatuei eman diete bide, komertzio txikia desagertzeko arriskuan paratu dute eta aisialdirako egokitutako esparru publikoak saltoki handiei eskaini zaizkie”.

Herritarrek diote lau haizetara iragarritako 30 lanpostu berriak baino gehiago izango direla deuseztuko direnak. “Gainera ez dute esaten jada Mercadonako langile direnek izango dutela lehentasuna Barañainera mugitu nahi izanez gero. Bestetik, kaleratzeengatik jaso dituzten salaketak ezkutatzen ari dira. Diziiplina gabezia argudiatutako kalera-tzeak dira, gaixotasun baja hartu izanari erantzuten diotenak”.

Salatu dute Mercadonak ez duela kontuan hartzen saltzen dituen produktuen jatorria: “Prezio baxuenak bilatzen ditu, produktu ahalik eta merkeenak eskaintzeko; inguruko ekoizleek ezin dituzte halako salneurriak onartu”.

Sestaoko orube publikoa, eztabaida iturri

Otsailean Sestaoko Udalak erabaki zuen hiri-antolamendu plana aldatzea, jabego publikoko 18.000 metro koadroko Mendietako orubea “enplegua sortu, ekonomia suspertu eta zonaldea urbanistikoki bultzatzeko” baliatu ahal izateko, EAJko zinegotzi Leire Corralesek adierazi zuenez. Jeltzaleek, PSEk eta PPK babestu zuten erabakia eta EH Bildu aurka agertu zen. Udalak emandako urratsak bidea erraztu zion lursaila begiz jota duen Mercadonari. Ekainean, ordea, Mendietako orubearen erabilera berriari buruzko eztabaida atzeratzea erabaki du Udalak, PSE, EH Bildu eta



Mercadonak saltoki txikiei kalte egingo diela salatu zuten ekainaren 20an Barañainen egindako giza katean.

PPren aldeko bozka eta EAJren abstentzioarekin, informazio gehiago bildu eta adostasun zabalagoa lortzeko helburuz.

Proiektuak aurrera egingo balu, Mercadonak 7.000 metro koadro hartuko lituzke, eta gainerakoa urbanizatu egingo litzateke, Udaleko diru-kutxentzako gasturik eragin gabe. Bien bitartean, hainbat herritar mugitzen hasi dira eta Udalari eskatu diote Mercadona herrira ekartzeko erabakia birplanteatzeko. Mendietako lursaila erabilera publikorako egoitu dezala eskatu dute, hasiera batean iragarri zen moduan.

40 supermerkatu 6 urtean

Iaz ireki zen lehendabiziko Mercadona Nafarroan, Antsoainen. Aurten da irekitzekoa Gipuzkoako —eta EAEko— aurrenekoa, Irungo Txingudi merkatal-gunearen alboan. Datozen sei urteetan 45 supermerkatu zabaldu nahi ditu Hego Euskal Herrian. ■



Emakumeak, joko-eremutik kanporatuak

Garai zailak bizi ditu emakumezkoen kirolak gurean: Osasuna futbol taldearen murrizketapolitikaren ondorioz klubak ez du datorren denboraldian nesken futbol talderik izango, eta Iruñeko San Juan ere desagertu egingo da. Halaber, Donostiako Bera Bera eskubaloitaldeak uko egin behar izan dio Txapeldunen Ligan jokatzeari, ez duelako diru-iturri berririk aurkitu.

| JON TORNER ZABALA |

OSASUNAREN erregional mailako taldea desagerrarazi zuten aurreko denboraldian, eta Bigarren Mailan aritu beharko litzatekeena kendu dute orain. Iruñea bertako San Juan taldeak ere bide bera jarraitu du, eta Barañaingo Lagunak Erregional Mailara jaitsi da.

Osasunako entrenatzaile Iosu Dominguezek hitzetan, zuzendaritzak jakinarazi die taldea gaur gaurkoz ez dela bideragarria: “Azaldu digute harremanetan jarri direla Nafarroako Kirolaren Institutuarekin eta Iruñeko Udalarekin, Osasunak ezin duelako proiektua %100ean bere egin. Entzungor egin dute denek, eta ondorioz ez dugu nesken talderik izango”.

Hainbat eragilek Nafarroako Gobernua dute jo-puntuan: “Gehiago interesatzen zaie emakumezkoen kirolari min handia egin dioten fikziozko proiektuak babestea, iaz desagertutako Itxako eskubaloitaldearekin gertatu bezala; edo errendimendurik apenas eman duen Navarra Arena moduko azpiegitura faraonikoetan inbertitzea”, kexu dira *Navarra Deportiva* agerkariko kideak.

Ardoi, Bigarren Mailan

Emakumezkoen Bigarren Mailan arituko den taldea Zizur Nagusiko Ardoi izango da. Nesken futbolak bizi duen egoera iluna argitzen duen albistea da, baina kontuan hartu behar da arrazoi ekonomikoengatik Bigarren Mailan jokatzeari uko egin dion Castejón taldearen lekua hartuko duela Ardoik.

Mulier, emakumezkoen futbolaren aldeko apustu berria

Osasuna desagertu ostean Eva Blanco buru duen lan-taldea proiektu berria hasi zen mamitzen, zenbait gurasoren babesarekin: Mulier. Epe luzera begirako ekimena da, denboraldi-aurrea Osasunarekin egin zuten 30 jokalaria gazteak oinarri dituen, eta helburu duena futbol eskola sortzea, besteren artean.

Bera Berak uko Txapeldunen Ligari

Donostiako Bera Bera eskubaloitaldeak bigarren jarraian irabazi du aurreten Espainiako Liga. Hala zegokion arren, ordea, uko egin dio Txapeldunen Liga jokatzeari, ez duelako aurkitu behar ekonomikoak aseko lituzkeen babesle edo bestelako diru-iturri berririk.

“Kluba ekonomikoki arriskuan ez jartzeko eta gainerako kirol erronkak ez hipotekatzeko pauso bat atzera ematea erabaki dugu”, azaldu du taldeak.

600.000 euro inguruko aurrekontuarekin, Europako txapelketarik garrantzitsuenetan aritzeak kopuru horren %10 hartuko luke. Kirol gehienetan ez bezala, emakumezkoen eskubaloitaldeek eurek ordaindu behar dituzte telebista eskubideak, 20.000 euro inguru taldekako fasea jokatzegatik. Datorren denboraldian estreinakoz, Bera Berak lehen fase hori jokatu beharra izango zuen, Europako Eskubaloien Federazioaren (EHF) araudi berria medio, eta gastuak nabarmen handituko lituzke horrek. ■



Osasunako ordezkariak salatu dutenez, instituzioek bizkarra eman diote nesken taldeari. (Argazkia: Berriozar femenino)





**June
Fernández**

KAZETARIA

Gorputz kolonizatuak

GUATEMALAKO ERREPIDEETAN dauden iragarkiei erreparatuz, badirudi Amerikako Estatu Batuetan gaudela. Iragarki horietan agertzen diren pertsonak altuak, argalak eta ilehoriak dira, *Golden Retriever* txakurra eta guzti. Publizitateak produktuak saltzeko erabiltzen dituen modeloez gizarteak erakargarritzat dituen gorputzak islatzen dituzte. Erdialdeko Amerikaren kasuan, horrek agerian uzten du arrazakeria sinbolikoaren pisua. Biztanle gehienak indigenak edo mestizoak diren arren, arrakastaren aurpegia txuria baita.

Euskaldun txuri, ezkertiar eta antiarrazista izanda, erraza da Erdialdeko Amerikara heltzea eta jendarteak barneratutako arrazakeria horren aurrean gupida sentitzea. Emakumeek daramatzaten takoi altuak ikusi, edota gehienek ile kizkurra lisatzeko duten joera ikusi, hauxe pentsatu nuen: “Tamalez, euren gorputzak oraindik ere kolonizatuak daude”. Baina ondoren nire buruari galdetu nion: “Eta nire gorputza ba al dago kolonizatu?”.

Feministok ez depilatzearen aukera aldarrikatzen dugu, baina onartu behar dut kostatzen zaidala emakumezko gorputz oso iletsua desiratzea. Eta ni (depilatzen ez naizenean) iletsua naizenez, emakume iletsuak gustuko ez izatea, nire gorputza den bezala gaitzesten dudanaren adierazle da

Erdialdeko Amerikan sentipen gogai-karri eta aitorrezina izan dut. Onartzea gorroto badut ere, hemengo pertsona gehienek aldean altua eta argala izatea atsegin dudala sentitu dut. Ez beti, sistema kapitalista heteropatriarkal honetan emakumeak ez baikaude inoiz gure gorputzarekin guztiz konforme. Batzuetan emakume latinoen azala, ilea eta gorputzaren sentsualitateak inbidia sentiarazi didate. Jakin badakit hori kutsu arrazista daukan estereotipoa dela, baina zaila da estereotipoen eragina saihestea. Era berean, Suedian egongo banintz, baxuegia eta borobilegia sentituko nintzateke. Ez

da kasualitatea herrialde aberatsetako edertasun eredua izatea herrialde txirotuetan ere inposatzen dena. Kolonialismo politiko eta ekonomikoari sinbolikoa gehitu behar diogu. Diskurtso politiko jakin bat izateak ez ditu automatikoki gorputzekin dugun harremanetan arrazakeria, sexismoa eta kolonialismoaren aztarnak erabat ezabatzen.

Baina beste gauza bat ere gertatu izan da: Erdialdeko Amerikan emakume gehienak ni baino baxuagoak eta potoloagoak direnez (*chaparrita-o* erabiltzen da gorputz mota hori deskribatzeko), liraintasunaren eredu zorrotzetik urrun dauden gorputz horiek desiratzeko aukera ere izan dut.

Pentsa: gure gorputza eta auto-estimua gain, gure desioa ere kolonizatu daukagu. Komunikabideek transmititzen digute gorputz erakargarriak argalak, altuak eta gazteak direla. Larruazalak ez duela ez zimurrik, ezta ildorik, ezta ilerik izan behar. Feministok ez depilatzearen aukera aldarrikatzen dugu, baina onartu behar dut kostatzen zaidala emakumezko gorputz oso iletsua desiratzea. Eta ni (depilatzen ez naizenean) iletsua naizenez, emakume iletsuak gustuko ez izatea, nire gorputza den bezala gaitzesten dudanaren adierazle da.

Desioaren funtzionamenduaren inguruan arrazionalizatzea zentzugabea dela pentsa genezake, baina uste dut garrantzitsua dela estetikaren eredu hegemoniko horren eragina behatzea eta, estereotipoak gaindituz, gorputz anitzen indar erotikoa ikertzea.

Esparru feministetan gero eta gehiago hitz egiten da “lodi-fobia”ri buruz; ez depilatzeari buruz, ezgaitasunen bat duten pertsonen zein adineko emakumeen sexualitateari buruz. Gorputz, desio eta sexu praktika anitzak politikoki aldarrikatzea behar-beharrezkoa iruditzen zait, baina benetan lortu al dugu edertasunaren agindu zorrotzak kolokan jartzea eta erotismoaren mugak zabaltzea? *Txokorro feministak* dioten bezala (Youtuben bila ezazue bideoa), uda garaian bikini-operazioa piktara bidali eta gorputzak eta desioak deskolonizatzea izan daiteke erronka ederra. ■





schumacher aterar da komatik ESPAINIA EZ

ZULO
EKONOMIKOAN

KATALUNIA
JOAN BADOA

ERREPUBLIKA
ZELATAN

ETAK
UTZI DU

BIPARTIDISMOA
TTUTT

USTELKERIA
ITORIK

ETA
PREBISIORIK
LETALENA:

LARROYA
A CASINHA!



Iñaki Odrizola

IRAKASLEA ♦



DANI BLANCO

Esklabo zoriontsuak

GIZAKI GUZTIAK, jaiotzez, berdinak garela esaten badizuet, begi-bistakoa dela erantzungo didazue. Halere, egun hauetan, Espainiako Errege eta inguruko ei buruz esandakoak ikusi eta irakurtzean, pentsatu dut, auzi honek baduela zeresanik.

Iruditzen zait, jendeak ez duela gehiegi sinesten gizakien benetako berdintasunean. Sakonean, zera uste izaten dugu: batzuek besteak baino baliotsuagoak direla, eta horiek badutela hobeto bizitzeko eskubidea.

Bi ideia hauek adierazten dute noraino dauzkagun barneratuta liberalismoaren oinarrian dauden mitoak. Sinestazten digute, jendartearen bi talde daudela: aberastasuna sortzen dutenak, eta besteak, agintari izateko egokiak, eta lanerako eginak; gurtuak izatea merezi dutenak, eta arruntak. Sinestazten digute, gainera, “baliotsuek” ordainez ondasunen bat jaso behar dutela, egindakoaren truke. Betiko merkatuaren legea, dimentsio bakarreko jendartearen.

Atenasko demokrazia aipatzen dugu, sarri, berdintasunari buruz ari garenean, baina ahaztu egiten zaigu “hiritar” haiek, gehienbat, bertako eliteak zirela, eta hortik kanpo esklabotza eta menpekotasuna besterik ez zegoela. Jendarte modernoaren hasieran, ilustratuek *Egalité* aldarrikatu zuten, baina, aurrekoen antzera, berdintasuna zergak ordaintzen zituzten elite bur-

gesari bakarrik zegokion.

Hogeigarren mendean, sufragio unibertsalarekin, pentsarazi digute denok garela hiritar, baina elite horiek sistema burokratikoaren muturrean, agintzen jarraitzen dute. Geuk uzten diegulako.

Espainian ez zen inoiz iraultzarik egin, eta elite

burgesak elite feudalarekin bat egin du. Bikoiztu egin zaigu, zoritxarrez arazoa. Jendartearen laurdenak langabezia dirauen artean, ikusi behar, sistemaren eskaileratan, zenbat lausengatzaile, zurikatzaile dagoen; ikusi behar, zenbat ustezko hiritar dagoen morroi, jopu eta mendeko izateko irrikan.

Harrigarria zenbat jende “ilustratu” dagoen, Erdi Aroko hondakin baten aurrean burua makurtzeko prest, zerbaiten eske belaunikatzeko prest, boterearen bueltan mesederen bat jasotzeko desioan, besterik ezean, leialtasun instituzionala aitzaki.

Esango didazue, orain, euskal jendartearen ez dela horrelakoa, gu “desberdinak” garela... Ziur? Nire herriko jaietan, udal agintariak (ordezkari behar luketenak), dotore-dotore jantzita, elizatik udaletxera desfilatzen dutenean, dantzari agurra jaso eta gero, udal banda entzutera joaten dira. Abesti ezaguna dago errepertorioan, *Esklabo zoriontsuak* deritzona. ■



Sufragio unibertsalarekin, pentsarazi digute denok garela hiritar, baina elite horiek sistema burokratikoaren muturrean, agintzen jarraitzen dute. Geuk uzten diegulako

Utopiak indar-bidean

DANI BLANCO



Edu
Zelaieta



IDAZLEA

EDERRA DA Rogelio Botanzen ahotsa Alfonso Sastren hitzak kantari: “*Es lo propio en nosotros soñar*” (Gaztelupeko Hotsak, 2004). Kantuak eta kontuak asebetetzen naute, bi-biek. Hain dugu geurezko eta hain dugu ahantzia amets egiteko ahalmena! Gure izaera humanoaren funtsetako bat dela esango nuke; baita ere, ametsak partekatuak direlarik, egitasmo sozial baten xede edota adierazle.

Alabaina, gogor kritikatu izan dituzte hainbat autorek ameslariak; politikari ugari irri egin izan diote utopiak ozenki aldarrikatzeari: absurdua ez ezik, arriskutsua

ere bada lortzerik ez dagoen idealari fierki atxikitzea. Zentzu falta ere adierazten omen du ameskeria eroekin ilusionatzeak, ezjakinaren nahiz heldugabearen pare ego-teraino.

Eta mutiko bixarguria izaki ni *in my forties*, panorama soziopolitikoan zerbait aldatzen ari dela ikusi uste dut azkenaldian; utopien aldeko leloak indar-bidean sumatu ditut. Balirudike, aspaldiko partez, errealtate egoskorra moldatzeko ahalaren sinemena berreskuratu dugula, oinak lurrean finkatuta. ■





Iñaki Antigüedad

♦ AMAIURREKO DIPUTATU OHIA

Zehazteko ordua heldu da

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA ardatz dugu euskal politikan, nahi ez dutenen artean ere, kanpoko eta barruko ekimenek hor jarrita. Giza kateak asko lagundu du horretan. Argi ari da uzten erabakitzeak kontzeptu aurre-politiko delako, eta herritarren esku-hartzea politika-ondokoa.

Demokratizazioaz ari gara politikaz baino, soziologiak abertzale-tasunaz baino. Kontuan hartzekoa da hau politikaren ohiko moldeak han-hemenka pitzatzen ari direnean. Aurrekoa buruan, eskubidea gauzatzeak aldeko gehiengo soziala eskatzen du, euskal lurralde bakoitzean eta guztietan. Subjektuak gogoan, horren gauzatze mailakatuaz gogoeta eragiten du horrek, trantsizio kontzeptua bere potentzialtasun osoan hartuta. Errealitateetik abiatzen gara; eta instituzioetan, gurean gaur direnak direla, behar diren berrien esperoan izan gabe. Pragmatismo sanoa, eraldatzailea, helbide hartuta, inoiz ere ez helburu. Hori bai, bide-orri oso argia behar da, traza nagusietan behintzat.

Hitza eta Erabakia aldarrikatzen dugu. Zentralitatea oinarri den erabakitzeak eskubideak hartu badu ere, Hitzak kezkatzen nau. Erabakitzeak unea helduta, lehenengoa behintzat, eskubideek ez dutelako iraungitze-datarik, zer eskainiko, horixe kezka. Nork bere eskaintza, marko juridiko-politikoaz eta eredu sozio-ekonomikoaz, baina niri ardura didana ezkerreko subiranistena da. Voice-Exit ez da eskaintza, ez bada zehazten nora joateko irten. Mobilizazioan erakutsi indarraren parekoa behar dugu eskaintzan. Landua, erakargarria, sinesgarria, mailakatu... hitz han-

ditan galtzen ez dena. Sozio-ekonomia funtsa duena. Atzekoz aurrera pentsatu, aurreko atzera eragiteko. Hor lan itzela dago egiteko, gizarteratzeko, burujabetzak dituen bi dimentsio espazialez: barnekoa, Euskal Herria; kanpoko, Europa. Ezin da eskubidea ezagutua izan eta geroko utzi, kasuko, gaurko Europarekin izan nahi dugun harremana, hau eta burujabetzaren mugartea lotuta baitaude. Galdera askoren erantzunak zehazteko ordua dugu hau, burujabetza sinesgarri egite aldera. Badugu Kataluniatik zer ikasi: Trantsiziorako Batzordeak sortu dituzte, Estatua eraikitze oinarriko egiturez, zaharren eta

Hitza eta Erabakia aldarrikatzen dugu. Zentralitatea oinarri den erabakitzeak eskubideak hartu badu ere, Hitzak kezkatzen nau. Erabakitzeak unea helduta, lehenengoa behintzat, eskubideek ez dutelako iraungitze-datarik, zer eskainiko, horixe kezka

berrien aldi baterako uztarduraz, zehatz hausnartu eta gizarteratzeko, burujabetza ikusarazteko. Jauzi koalitihoa, edukiz bete, hemen eman beharrekoa, ohiko politikatik haratago. Hezkuntza sistemari eskatzen zaizkion artean dago zientifikoa izatea, zehatza; bada hori, gure eskaintzan ere. ■



BERTSO BERRIAK

Itziarko Auzo Udala

Denon Herria plataforma



Doinua: Iparragirre abila dela.

Auzoen nahia aurrera doata jauntxoan tripa mina. Herria eta Auzo Udala ez dira gauza berdina. Debar askon beldurak industria ta lurrak. hau da egia gordina. Demokrazia begien bistan eta ikusi ezina.

Galdeketa bat auzo guztitan jendea nahia galdetzen. Unanimidadez baietz esan ez dute errespetatzen. IU ta PNV EA oso bat gabe. Jarri ezkerre pentsatzen. Demokrazia aipatu eta ez ote dira lotsatzen?

Elkar bizitza degu helburu herri bat eta zabala. Behingoan argi dezagun denok urteetako itzala. Hau da gure bidea gure eskubidea. Uste deu normala dala. Auzoen nahia hori delako nahi dugu Auzo Udala. ■



Angel Erro

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Nola ez ditudan idatzi nire poemetako batzuk

IGERILEKURAKO bidean noa. Igerilekura joateko indarra biltzea egitandia dut eta pozbidea, bizitza ordenatuagoaren lehen zantzua. Igerilekura doan bidea —behin abiatzea lortzen dudanean— beti du zoriontasunak errazten: neure osasunari on egingen dion ariketa fisikoa alde batera, hemendik gutxira edertasunaren lekuko zuzena izanen naiz, beteen ulertzen dudana formatuan, humanoan, eta, ez halabeharrez aurrekoarekin lotuta, sorkuntza literarioarako abagunea izanen dut.


Nire poema gehienak igerilekuan sortu ditut, igerian bururatu zaizkidalako edo, egindakoak neure buruari errezitatuz, uretan zuzendu edo baztertu ditudalako. Uretan beti entretenitu naiz hitzekin, hauek hark osatuta daudela sinesterraino.

* * *

IGERILEKURAKO bidean noa, poema bat idazteko gogoz nagoelako, poema bat etor dakidalako gogoz. Literatura borondate kontu bat ere bada. Bakardadea eta etsipena behar ditu. Garai batean erruz nuen bakardade eta etsipenetik. Orain, drogazale zailduagoa, nik bilatu behar ditut edo antzeratu.

Igerilekurako bidean noa eta euria hasi du. Oinez jarraitu dut. Jendea babestokietara sartu edo korrika egiten du hormatik ahalik eta arrimatu. Nolanahi ere busti behar denaren baretasunarekin, beste logika batek mugiaraziko banindu bezala, nik ez dut halakorik egiten.

Poema bat bururatu zait, zeinean protagonista —lehen pertsona bat: ni— igerilekurantz doan baina bidean euria egiten dion. Kale erdian gelditu egiten da —akaso, poemaren lehen bertsioan, zabaltzen ditu besoak, orrazketaren zain— eta sentitzen du bila zihuan garbitzapenak bera bilatu eta aurkitu duela. Ohartzen da jada ez duela igerian ibili beharrik, naturak eskaini dion ur jasa ezinen diolako inolako pisiznak berdindu. Bira eman eta etxera abiatzen da.



Joseba Larrazte

Zalantza egiten dut —europear, nagoen moduan, bustirik— bira eman, etxera itzuli ez itzuli, poema hori idaztera. Berez, poemako pertsonaia bezala, bilatzen ari naizen inspirazioak ni neu aurkitu nau. Idatzi beharko nuke ikustearren idaztea azkenean merezi ote duen. Duda ere pizten dit poemak iradokiko lukeena errazkeria ote den: ur basa ur menderatua baino hobetzat ematea, sublimea ederraren gainetik jartzea, igerilekuei (neurri batean uraren lorategi edo baratze itxiak dira igerilekuak) diedan maitasuna trazionatuz.

Ohartzerako, igerilekuaren sarreraraino iritsi naiz. Orain barregarria litzateke buelta ematea. Poema beti dezaket geroago idatzi. Edo ahanzi.

* * *

BAINUJANTZIAN ekin diot temati ura goldatzeari, ondoko kalearen igerilariarekin lehia sekretuan, baina poema hori dagoeneko idatzita daukat. Serieen arteko atsedenaldirik batean biok gatoz bat. Begiratu diot eta —hor ageri zait azkenik poemarako gaia— aurpegi bustiaren erdian odol anpulu bat hasi zaio sudurrean eta aho ertzetik behera irristan isuri, gorri koloreztatuz musua. Mutila ederra da. Odolak, ahuldu ordez, heroi itxura ematen dio. Jakin dut poema eskainiko diodala.

Poesia gauzen eta pertsonen gaineko jabegoa galdatzeko bide bakarra dut.

Heroiari menia eman eta ohartarazi diot gizakia dela, sudurreko odol jariora baduela. Berak ez dit ulertzen. Amore emateko aukera aztertzen dut, horrek eskainiko zidan poema —odol lorratza uretan— aurreikusiz. Neure sudurra seinalatzen dut eta berak ere bai berea. Neure poeman biok odoletan bagenitu sudurrak, gorri koloreztatuz muxuak?

Urrutiegira eramanez olerkiaren aukera. Pasadizoak hona ekartzeko dit dagoeneko

besterik ez balio. ■



Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparralde Euskal Herrian 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (24 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ZELOPAREA
HEMENDI VITI

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

Neurriak eta erabakiak hartzeko unea

Euskal Herriko kultur komunitateak, kulturak bizi duen gainbeheragatik kezkatuta, neurriak eta erabakiak hartzeko unea heldu dela uste du. Otsailean lehen bilera egin ostean, ekainaren 12an elkartu ziren berriro sortzaileak, kudeatzaileak, eragileak eta beste, Guk Geure Kulturaz plataformak deituta. Oraingoan, Premiazko Neurrien Egitasmoa adosteko.

| MYRIAM GARZIA |

KALKULUEN ARABERA, Hego Euskal Herrian 20.000 lanpostuk eta 5.000 enpresak osatzen dute kulturaren sektore ekonomikoa. Gainbehera latzari aurre egiteko, Guk Geure Kulturaz plataforma osatu zuten urtearen hastapenean. Tartearen ziren ADDE (Euskal Herriko Profesionalek Dantza elkarteak), Ahotsenea, AEB (Euskal Aktoreen Batasuna), Karraskan, Kultura Abiarta, Kultura Live (Euskal Herriko aretoen elkarteak), MIE (Musika Industrien Elkarteak) eta Soinueder. Beste elkarte batzuekin batera, talde eragileak osatu eta kulturako hainbat lagunen atxikimendua jaso zuen plataformak. Diziplina ugariak: dantzariak, aktoreak, musikariak, bertsolariak, idazleak, kazetariak, aretoetako jabeak, kudeatzaileak, teknikariak, kultur elkarteak eta mugimenduetako kideak, EHUko irakasleak... Bat egin dute denek kultur komunitate zabala osatzeko, eta hausnarketan jardun ostean, erabakiak eta neurriak hartzeko tenorea heldu dela nabarmendu dute.

Geuk plataformak deituta, 70 bat lagun bildu ziren ekainaren 12an Durangoko San Agustin aretoan. Helburua, kultur sektoreari ezinbestekoa zaion Premiazko Neurrien Egitasmoa adostea, hau da, gure kulturak, amildegitik gora egin dezan, egun behar beharrezko dituen neurriak sustatzea eta bultzatzea.

Egun osoko jarduna izan zen. Lan taldeak honoko gaien inguruan osatu ziren: Kultur-gintzaren artikulazioa eta antolaketa, sortzaileen lan baldintzak eta sorkuntzaren egoera, komunikabideen garrantzia, euskara eta kultura, berrikuntza teknologikoak, hezkuntzaren eta kulturaren arteko harremana, kontsu-

mitzaileen garrantzia, eleaniztasuna, kulturaren oinarritzko eskubideen arautze legala, egungo eskaintza kulturala eta azpiegitura eta kulturartekotasuna.

Kultura aintzat hartu beharra

Durangoko San Agustin aretora gerturatu ginen geu ere. Lan taldeak hemen eta han. “Babesa behar dugu” entzun zen multzo batean, “EiTBren inplikazioa behar da” beste batean. Sortzaile ezagunak ikusi genituen, baita kultur eragileak ere, eta kudeatzaileak, kazetariak, antzezleak, idazleak, musika munduko langileak... Nor bere esperientziatik ari zen.

Ixi Garcia Karraskan elkarteko kidearekin eta Gabriel Ocina Euskal Aktoreen Batasuneko kidearekin bildu gara txoko batean. “Helburua lortu da” dio Ocina. “Taldea eratu dira eta eztabaida egon da. Ekarpenak hor daude”. Topaketarako deialdi irekia egin zuen plataformak. Durangora hurbildu nahi zuen orok, baita erakunde publikoek ere, atea zabalik zuten.

Eremu publikoko banakako batzuk heldu ziren, eta dagoeneko bi bilera ez formal egin ditu plataformak Eusko Jaurlaritzako Kultura sailarekin. “Udazkenean jarraipena izatea espero dugu, bai erakundeekin baita alderdi politikoen ere”, azaldu du Ocina. “Gai garrantzitsuetan murgildu gara eta badira gainera, beste gai batzuk ere, artean atera ez direnak. Prozesuak zabalik jarraitzen du. Sektore honetako kide ahalik eta gehienak erakurri nahi genituzke, ideologia eta kolore guztietakoak”, diosku Ixi Garcia.

“Gaurko bileratik ekintza eta neurri zehatzak agertu dira, eta horiek Premiazko Neurrien Egitasmoa osatuko dute. Material hori



IBAN GORRITI / ANBOTO.ORG

bilduta Eusko Legebiltzarrera, erakunde publikoetara eta udaletara eraman nahi dugu egitasmoa. Gizartean oihartzuna heda dadin ere ahalginduko gara”, jarraitu du Ixi Garciak.

Kultur komunitatea osatuta dago Ocina-ren ustez: “Dagoeneko hainbat elkarte ari da lanean, baina Topaketon berritasuna, aparteko arlotan ari direnak elkartzea eta lotzea izan da. Ez da ohikoa, esaterako, musikariak antzezleekin edo bertsolariarekin mintzatzea haien kezkez”.

Karraskan elkarteko kideak bere inguru hurbilean ikusten du egun kultura sektorea zertan den: “Gure energia makaltzen ari da. Oso zaila da borroka horri modu iraunkorrean eustea, gure lan baldintzak ez baitira duinak. Kultura-ri daukan balorea eman behar zaio, arreta jarri behar zaio kultur sorkuntzari. Balorea soziala izan daiteke, edo politikoa, eraldatzailea, ekonomikoa... Topaketok egoera iraultzeko balio dute. Baliabideak nahi ditugu egoera hobetzeko, inongo dependentziarik gabe”.

Arazoak arazo, Espainiako estatuan ez dago sortzailearen figura fiskalik. Frantziako estatuan aldiz, bai. Ixi Garciaren ustez, hutsune asko dago, eta oso kaltegarriak sortzaileontzat. “Definitu gabeko izaera horretan harrapatuta gaude. Profesionaltasunerantz bultzatzen gaitu testuinguruak, gauzak beste era batean egiten ahalegintzen gara, bidea hori dela pentsatuz, baina, azkenean, hutsune horrek noraezean uzten gaitu”.

“Kultura gainerako sektoreak bezain garrantzitsua da”, Ocina-ren aburuz. “Badirudi kulturarik ez badago ez dela inor kexatuko. Baina sektore horretan profesional asko ari da lanean. Ez gara ohartzen kulturarik gabeko herria ez dela errealia, inoiz ez da halakorik izan. Gaur egun, kultura merkatuaren adar bat besterik ez dela ematen du”.

Ixi Garciak dioenez, “Kultura eraldatzailea da, eta hori, sistema produktiboan eraso

Goian, ekainaren 12ko topaketa. Behean, Karraskan elkarteko kide Ixi Garcia eta Euskal Aktoreen Batasuneko kide Gabriel Ocina.



gisa ulertzen da. Ikuspuntu hori aldatu beharra dago, kulturak duen potentzialitatea zabaltzen saiatu behar dugu epe luzera. Bi abiadura daude kulturaren sektorean. Egoera larria da eta berehalako erantzunak behar dira, baina, prozesu horrek luze joko du”. Kultura erabat desartikulatuta dagoela dio Gabriel Ocina, eta pausoak eman behar direla ildo horretan.

Sektorea bera etengabeko gogotan dago, hartu beharreko neurriez, sortzaileengandik hasi eta azken muturreraino, kontsumitzaileenganaino helarazi nahi dute euren egoera. “Ondotxo ezagutzen ditugu geuk geure kezkak, ametsak eta helburuak. Barnetik ezagutzen dugu kultura. I+G teknologiari lotu izan zaio beti, baina gu gizartearen I+G arloa gara.

Azpisektore txiki asko gara, baina denak elkarrekin sektore handi bat osatzen dugu, eta horrek indartuko gaitu”, azaldu digu Ocina.

Proposamenak

Ekainaren 12an bildutako lan talde bakoitzak beharrezko ekintzak eta neurriak proposatu zituen egunaren bukaeran. Besteak beste, on line telebista kate baten sorrera, kulturari erabat emana eta EITBren bazkidetza izango duena; euskal kulturak eta sorkuntzak azpiegiturretan eta komunikabideetan izan beharreko kuota handitzea; antzoki, areto eta gainerako azpiegituren mapa eratzea; kulturaren gaineko zerga jaistea; sortzaileen figura fiskala aldarrikatzea; sortzaileek sortzaile berrien formazioan duten erantzunkizunaz jabetzea; euskal kulturak eta batez ere, euskarazko sorkuntzak izan beharreko presentzia areagotzea; euskal curriculumean kulturaren eta kultur eragileen parte hartzea bermatzea... Agerikoa denez, kulturaren bistaratzeak eskatuko du lanik handiena. ■



Zaratak liluratuta

Ospatu berri da Astro Artian musika experimentalen jaialdia, Gernikako Astran. Hainbat sortzailek egin zuen han topo, eta haien arteko aldeak nabariak izanik ere, denek egiten dute bat lan egiteko moduetan, askotan musika industriak markatutako moduetatik kanpo. Zaila egiten da talde hauen estiloa genero musikaletan sailkatzea, baina Arto Artian plataformak katalogo berezia osatu du musika talde eta sortzaile hauen lana jasoz.

| MYRIAM GARZIA |

EKAINAREN 14AN antolatu zuten Gernikan, Astro Artian musika experimentalen jaialdia. Besteak beste, Gora Japon, Ainara Legardon, Colombinas, Al Karpenter, Amoran-te, Bazterrak, Miguel A. Garcia, Loty Negarti, Oier Iruretagoiena eta Inazio Escudero izan ziren protagonistak. Jaiaz eta musikaz gain, liburu eta gainerako materialen azoka, instalazioak, proiektzioak eta herri bazkaria baliatu zituen Arto Artian plataformak, bere webgune berria eta musika experimentalen katalogo berria aurkezteko.

Zein da musika eta zarata banatzen dituen lerro estua? Ahotsa edo hitza eta honen fonetika musika izan daitezke? Entzuleei sentipenak eta sentsazioak sorrarazteko helburuz ateratzen den zarata arte sorkuntza da? Galdera hauek erantzuteko, Eten musika taldeko Ibon Rodriguez, Aitor Loty Negarti eta Oier Iruretagoiena sortzaile eta Arto Artian plataformako kideekin bildu gara.

Jaialdiaren antolaketa parte hartzeaz gain, Loty Negartik musika elektroniko inprobisatua egiten du, poesia, hitza eta fonetika baliatuz. Oier Iruretagoiena, berriz, soinetik hurbilago dago musikatik baino, eta arte instalazioak barneratzen ditu bere proposamenetan.

“Katalogoan bildu ditugun talde guztiei luzatu genien jaialdian parte hartzeko gonbita. Batzuek kale egin zuten, Akauzazte kasu, baina gehienek baiezkoa eman ziguten” azaldu digu Aitor Loty Negartik. “Gehienak



Bilbo eta Bizkaia inguruko taldeak izan dira”, gaineratu du.

Sortzaile arras desberdinak bildu ditu jaialdiak: Iban Urizar musikariak –Amorante ezizenez– bakarka aritzen denean, cante jondoa egin du gitarraz lagunduta. Bistan denez, ez du zerikusirik Loty Negartirekin, Miguel A. Garcíaren musika elektroniko inprobisatuarekin edo Al Karpenterren rock esperimentaltarekin. Beste adibide bat, Ainara Legardonen ahotsezko inprobisazioak. Oier Iruretagoienaren eskultura, soinua eta instalazioak baliatzen ditu. “Musika esperimentalak etiketa hor dago beti, baina inork ez du beretzat hartzen. Hala ere, musika estiloak baino gehiago, gauzak egiteko moduak elkartzen gaitu. Musika

industriatik kanpo gabiltzan sortzaileak gara, agian industriak berak kanpoan utzi gaituela-ko” dio Ibon Rodriguezek.

Proiektu berritzaile, apurtzaile eta ausartek badute tokirik egun, musika industrian dagoen anabasatik kanpo.

Gernikako jaialdian erakutsi ziren sormen-lan asko *site specific* izan ziren, hau da, lekuan lekuko ezaugarrietara egokitutako ikuskariak. Gernikako gerra garaiko bunkerrean egindako kontzertua kasu. “Espazioak dituen ezaugarri historikoei, akustikoei eta bestelako nabardurei eragina dute zuzenekoetan” dio Ibon Rodriguezek, “are gehiago inprobisazioan oinarrituta badaude”. Sortzaileen inplikazioa erabatekoa izan zen jaialdian, apenas dirurik gabe antolatu baitzuten. Bestalde,



Goian, Gora Japon. Alboan, Akauzazte taldeko Oier Etxeberria.


jaialdira USB giltza eraman zutenek Arto Artian katalogo osoa eskuratu ahal izan zuten doan.

Euskarriez gaindi

Arto Artian plataforma musika esperimentalen katalogoa da berez. Akauzazte eta Gutural musika taldeen ideia izan zen hasiera batean, “baina denborak beste eremu batzuetara eraman gaitu, Arto Artian zer den geuk ere ez dakigu”, azaldu digu Ibon Rodriguezek, barrez; “Badakigu zer ez den. Beharren arabera asmatzen joan gara”. Gauza praktikoa moduan sortu zen, musika taldeen sarea osatzeko helburuz. “Musika ekoizpena oso aldatu da azken urteotan. Euskarri fisikoa bera desgertu egin da ia, eta banaketa arazorik ez dago jada. Baina talde hauen bistaratzean egin behar da lan.

Gauzak honela, euskarri digitala lantzen dute nagusiki, Arto Artian plataformakoek. Webgunea berri dute, musika ondarea jasotzeko, eta nahi duenarentzat eskuragarri egon dadin. “Weba eztabaidarako gune ere izatea nahi dugu, bereziki modu horretan ekoizten duten taldeentzat” dio Ibon Rodriguezek.

“Besterik da, musika webgunean jartzeko erabakia hartu duten musikariek zein konpromiso maila duten plataformarekin”, zehaztu du Aitor Loty Negartik. “Webaren funtzioa, funtsean, musika sorkuntza katalogoan batzea da, eta sorkuntzari bide ematea” gehitu du Oier Iruretagoienak. Horregatik, katalogoan dauden erreferentzia guztiak doan deskargatu daitezke. Zaletu eta sortzaileen arteko harre-



mana “zuzenagoa izango da” diosku Ibon Rodriguezek, “ale fisikoa nahi duenak sortzailearekin jarri beharko baitu harremanetan”.

Musika esperimental edo txiki hauen ondarea kudeatzea da Arto Artian plataformaren helburua, “eta, talde heterogeneo hau, eszena ez dena, baina izan litekeena, jarri nahi dugu harremanetan”, argitu du Loty Negartik, “webgunea haien tresna izan dadin”.

Astra, beharrezko egitura

Hemeroteka lana egin, kontzertuak antolatu, musika ondarea sortu eta jaso, finean lan ugari dago katalogoan dauden musika taldeak dinamizatzeko eta ikusgarri egiteko asmoan. Abangoardiako artea zabaltzeko gunea izan nahi du Arto Artian plataformak, disko fisikoen bertsio digitala eskuragarri jarri baina baita zuzeneko grabazioak egin ere, Rodriguezek azaldu digunez: “Plataformako kideek egindako kontzertu grabazioak zintzilikatuko ditugu. Batetik gaurko eszenan gertatzen ari dena zabaltzeko, eta bestetik, hemendik 10 urtera gaurko egunean zer egiten ari den ikusteko”.

2006an sortu zen Arto Artian plataforma, eta bere lehen aurkezpena Astra arma fabrika eraldatu gabe egin zen. “Astra nola sortu den, nola eraldatu eta modu partehartzailean nola kudeatzen den, zoragarria iruditzen zait” nabarmendu du Ibon Rodriguezek. Eta Aitor Loty Negartik gehitu: “Astro Artian jaialdiari Astrak eman dio dimentsioa. Azpiegitura moduan, zoragarria da Astra, aldi berean hiruzpalau kontzertu egiteko aukera eskaintzen du. Toki askea da, Bilbotik ateratzeko aitzakia...”. ■



INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiak eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjn@inakibereziartua.com

Odolaren Mintzoa
Odolaren Mintzoa
Oihuka, 2013



Borroka eta maitasuna

ODOLAREN MINTZOA Usurbilgo (Gipuzkoa) talde gazte bat da. Beren lehen CDa kalean dute. 6 kantuz osaturik dago lana.

Taldeakideek odol beroa daukate. Grina, kementa eta indarra barrutik ateratzen zaie, eta borrokatzeko eta maitatzeko gogoa ere bai.

Gazteak dira, baina ez du ematen, CDko kantuek entzun eta gero taldekideek erraztasunez eta segurtasunez, gatz eta piperraz jotzen dutela sumatzen baita. Doinu potoloa, gordina eta trinkoa osatu dute. Kantuek azkarrak dira, zuzenak, zorrotzak eta oldartsuak, baina taldekideek melodia politzez borobildu dituzte.

Gitarrak dira oinarria. Ahotsak batzuetan oldarkorrek dira baina beste batzuetan ez hainbeste. Luken kantariak leun samar abesten baitu hainbat kantutan. *Bakarrik ere* kantuan aipagarria da Oihana Arsuaga taldekideen lagunaren parte-hartzea, bere ahots politak ederki osatzen baitu Luken kantariaren abesteko modua.

Joanes Txueka Seguro (baxua eta ahotsak), Beñat Txueka Seguro (gitarra), Jokin Irastortza Larrañaga (bateria) eta Luken Arkarazo Silva (ahotsa eta gitarra) dira Odolaren Mintzoa taldeko kideak. Andoaingo Garate estudioetan (Gipuzkoa) grabatu dute diskoa, 2013ko uztailean. Kaki Arkarazo arduratu da grabazioaz, nahasketez, masterizazioaz eta ekoizpen artistikoaz, eta oso lan ona egin du. Ander Gilleneak (argazkia) eta Unai Aranak (diseinua) ere parte hartu dute *Odolaren Mintzoa* lanean.

Doinuak bezala, hitzak zuzenak dira, eta batzuetan bortitzak –“Nahiago dugu ilunpetan bizi, zertarako gure beldurrei aurre egin? Arriskurik gabeko bizitza eder bat, arriskurik gabeko hildako bizi bat!” (*Gaua*)–, baina taldekideak sentikorrek direla nabari da. Jadanik joan den maitasunaz mintzo dira *Mirabe* kantuan –“Lotura sendoenak apurtzerakoan etortzen dira ondorio larrienak. Gauero nire buruari galdetuz: zertan ari zinen, maite zenidala telefonoz esaten zenidan bakoitzean?”– eta *Betirako* kantuan –“Zure begiekin ikasi nuen begiratzen, bizitzaren onenak ikusten. Zure eskuekin ikasi nuen borrokatzen, maite nuen oro defendatzen”–.


Borroka egiteaz: “Bagoaz aurrera, denok batera, aske izatera! Goazen mundua salbatzera, batera, gauzek zentzua galdu ez duten bitartean” (*Askatasunerantz*); “Guztia ahazteko, ekintza antzuak burutu eta gero, ikasi nuen, borrokatzen dela amore eman baino lehen! Maitatzen dela borrokatzen!” (*Bakarrik ere*).

Eta aske izateko nahiaz: “Nazkatuta gaude geu ez garela izateaz oraindik onartu ez den gatazka batean. Hain zaila al da ulertzea? Ezberdinak garela!” (*Ezberdinak*).

Odolaren Mintzoa talde berri bat da. Talde on bat. Beren lehen lana ere ondo egina dago, eta kantuek arin eta gustura entzuten ditut. Hemendik aurrera arretaz erreparatuko diet taldearen hurrengo urratsei, taldearen hurrengo grabazioei eta jendaurreko emanaldiei. ■

Joxi Ubeda



**Helduen Literatura**

Adiskide bat nuen
Joxean Agirre
Elkar, 2013

Bizitza literaturan eta literaturan bizitza

LITERATURAKO irakasle gizonezko baten ahots narratiboa da eleberri osoan gidatuko gaituena. Narratzaile eta protagonista honek agerian utziko du bere kontaketa prozesuaren helburua: “Egunkarietatik deitu ohi dute hil berriari buruzko iritziak bil-tzeko... eta horregatik hasi nintzen neure adiskideak zerrenda-tu eta haiei buruzko gorazarre posibleak prestatzen” (9. orr).

Baina, *Adiskide bat nuen* izenburuak, zendutako lagun baten gorazarretik eleberria abiatzen badu ere, errusiar panpinen antzera zabalduko den istorio hirukoitza biltzen du bere bai-tan. Honela, istorioak zabalduz doazen neurrian, orotariko gai eta hausnarketa interesgarrien partaide izango gara: Historiari lotuak batzuk, euskal gatazka bezala, eta testuinguru zabalago batean, 68ko Maiatzeko mugimenduak. Eta abstraktuagoak beste batzuk: maitasuna, fantasia, desioa, identitatea. Azken hauek, Literaturaren gaineko erreferentziez indartuak datoze-nez, pertsonaiaren hezurdurari haragia eransteko balio dute.

Proust, Stendhal, Borges, Pessoa edo Agatha Christieren antzera narratzaile lotsatia da bera ere. “Mundua askoz ere ederragoa litzateke lotsatiz beteko balitz” (126. orr) aitortuko du momenturen batean, eta horregatik adiskide bat duela errepikatuko du etengabe bere bizitzako atal baten autobio-grafia literarioa idazteko.

Hiru istorio, beraz. Garibaldi, gaztetan borroka klandestino-an aritutako lagunari buruzkoa, hari zuzendua baita gorazarrea. Baina klandestinitatearen barrunbean bidaia-tuz, sakabanatuko dituzten errautsak ez dira benetako Garibaldirenak, bere iden-titatea ordezkatu zuen erakundeko beste norbaitenak baizik.

Narratzaileak maitasunagatik sufritzen du, hala antzematen du etxe azpiko parkean saltoka hasten den Freud izeneko txakurtxoak. Bere emaztea astean hirutan kiroldegira joaten dela dio, baina beste gizon bat ikusten du errealtate gordinen. “Bera edo ni” galdetzea gustatuko litzaiokeen arren, ez du horretarako indarrik, eta Zurriolako terraza batean topatutako neska misteriotsu eta xarmant batekin amesten du. Neskaz gutxi dakigu; takoizko zapatak txilena modura erantzten dituela, futbolariek erakusten ez duten dotorezia batekin, bere ibilkerak gogoeta berezi bat merezi duela, eta abar. Azken finean prota- gonistaren ametsak, desioak, eta horiek idaztean ezagutzeroa ematen diguna besterik ez dakigu. Eleberri amaieran, Biografia eta Literaturaren inguruko eskola batean, argituko da haren identitatea.

Eleberri ederra, erreala eta ametsezkoa. Bizitza literaturan. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Belen Uranga Soziolinguistika Klusterreko teknikariak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


	7	3	9			8		
				3		4	6	9
9	8	4	2					1
	6	7	1					9
5	1			9			4	7
	4				5	3	1	
4					7	6	5	2
7	5	2		6				
		6			2	9	7	

Zaila

		2		4	1			
	1					4	8	6
			9			7		
6	9					8		
4								7
		5					9	4
		7			5			
5	3	8						2
			3	8		9		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



- 1.-Hortz. 2.-Egitekoa, arazoa.
- 3.-Gatz gutxi dutenak.
- 4.-Landare mota. 5.-Ekartzen nau.

Kike Amonarrizen umorea



Izena

- Nola duzu izena?
- Xabi.
- Eta zer gehiago?
- ... er!

Liburuak

Bezeroa liburu-dendara sartu da:
– Ba al duzue munduko ur eskasiari buruzko libururik?
– Ez!
Agortuta daude!



Soluzioak

Erraza

8	7	5	2	3
9	4	1	6	8
3	6	7	3	1
9	8	4	2	5
5	1	8	6	9
2	7	5	3	1
4	9	6	7	5
7	5	2	4	6
8	3	6	5	1

Zaila

8	6	2	7	4	1	5	3	9
7	1	9	5	2	3	4	8	6
3	5	4	9	6	8	7	1	2
6	9	1	2	7	4	8	5	3
4	8	3	1	5	9	2	6	7
2	7	5	8	3	6	1	9	4
9	2	7	6	1	5	3	4	8
5	3	8	4	9	7	6	2	1
1	4	6	3	8	2	9	7	5

Puzzlea:

“Aztertu ditudan plangintza guztietan agertzen da garapen iraunkor konzeptua, baina kultura eta hizkuntzei buruz, ezer gutxi. Hori horrela da”.

5x5:

1. Hagin. 2. Afera. 3. Gezak. 4. Iraka. 5. Nakar.



CRISTIAN MARTINEZ

Lapurdiko kostalde osoko parte-hartzaileak izango ditu *Gerezien Denbora*-k (goiko argazkian mustraka bat ikus daiteke). Horietako zenbait, bertan bizi diren zuberotarrak dira. Hain zuzen ere, arituko diren zortzi dantzarietatik zazpi zuberotarrak dira. Jean-Pierre Recalt Altzabeheitiko dantza-maisu ospetsuak ere jarriko du aletxo, hala Beñat Axiariri errejent lanetan laguntzen nola dantzariak prestatzen.

Galdaran sortutako pastoralala

ERREJENTA LANAK egingo dituen Beñat Axiariren nahikari batengatik sortua da *Gerezien Denbora*, Zuberoatik kanpo erakitako lehenbiziko pastoralala. Hiri pastoralala esan diote bere sortzaileek, baita pastoral post-industriala ere, baina nago adjektiboa zehatzagoa litzatekeela “post” aurrizkia gabe. Ez zaitzala nahasi izenak iradokitzen duen naturarekiko loturak; *Gerezien Denbora* fabrika batean gertatzen den istorioa da, eta bertako langileen borroka du ardatz. Edo ardatzetako bat bederen.

Beñat Axiari kantari eta musikaria da aspalditik, baina bizimodua hortik atera baino lehen Baionako galdategi batean aritu zen behargin hainbat urtez. “Han bizitako esperientzia oso inportantea izan zen enetzat, han ezagutu ditut langileen elkartasuna, lan baldintza txarrak, borroka...”.

Galdategiko lana utzirik kantari bilakatu zen Axiari, baina iragan harekiko lotura sekula eten gabe. Eta bizipen horiek pastoral batean emateko grina piztu zitzaion. Naturalki etorri zitzaion bere istorioa taularatzeko forma hori hautatzea: “Zube-

Izenburua: Gerezien Denbora.
Noiz: Ekainaren 29an, 16:30ean.
Non: Baionako portua, St Bernard kaia (eskuin ibarra).
Errejenta: Beñat Axiari.
Idazlea: Itxaro Borda.

roako kultura biziki inportantea izan da ene bizian, Donapaleukoa naiz baina ene abizena, Axiari, Eskiulatik dator, eta beti ukan ditut harremanak Zuberoa osoko jende askorekin”. Are gehiago, bi pastoraletan aritu izan da, kantuen egile eta gidari.


Axiarik Itxaro Borda lagun minari eman zion asmo horien berri, eta Bordaren erantzuna *Gerezien Denbora* idaztea izan zen, Baionako Postako lantokian greban zirela profutatuz, duela zortzi urte. Azkenik oholtaza gainera eramatea erabakirik, lan gehigarria izan du Bordak: hainbat pasarte erantsi behar izan dizkio jatorrizko bertsoari, “aktoreen energiak jelkaldi berriak ekarri baititu”, Axiarik berak esplikatu bezala. Ondorioz, ia hiru oreneko iraupena izango du ekainaren 29an ikusiko den *Gerezien Denbora*-k,

2006an idatzitako hark baino ordubate gehiago.

Izenburua ez da asmatua, bistan dena; *Le temps des cerises* amodio kanta ospetsuaren itzulpena da. Hori ere emango da pastoraletan, Itxaro Bordak euskaraz idatzitako hitzekin. Zergatik gereziak? “Pastoral honen gakoetako bat naturarekiko errespetua izango da”, arrapostu du Beñat Axiarik. Beste gako bat: maitasuna. Langileen borroka, liskar eta greba artean, amodio istorioetarako tarte baitu Bordak idatzitako istorioak. Besteak beste, fabrikako langile baten eta nagusietako baten ezkontzak agerian utziko du pastoraletako urdinen eta gorrien —onen eta txarren— arteko bereizketan ohiko sinplismotik harago joan nahi izan dutela *Gerezien Denbora*-ren sortzaileek, Axiarik iragarri badigu ere alde orotatik pastoral tradizionala —“purua”, haren hitzetan— taularatuko dutela. Lapurdin sortu eta estreinatzea bada, agian, nahikoa berrikuntza lehen dosirako. ■

Unai Brea





Euskal Herria ezagutuz

SARA (LAPURDI)

Larrungo trena, 90 urteko traizio txikia

Zure inguruari buruz idaztea da zure inguruarekin adiskidetzeko bidea. Badakit aitatzki urruñarrek traizio bikoitza leporatuko didatela. Badakit urruñarrak Oleta auzotik gora igan behar duela Larrunera. Badakit ibiltzeko direla zangoak. Badakit. Baina ekainaren 30ean beteko ditu 90 urte Azkaine eta Sara arteko San Inazio lepotik Larrungo tontorra harrapatzen duen trenak, eta aizue, ez dago ipurdia bezalakorik hanke atsedean hartzeko.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

SAN INAZIO kaskoko aparkaleku mukuru betean utzi dugu autoa. Inguruko bentetatik bueltan diren erretiratu landesen autobusak, etxepeko aldapari mendia esaten dioten takoidun paristarrak, haurtxoarekin arratsalde pasa etorritako gipuzkoarrak, trenekin maitemindutako bikotea, paisaiak pintatzera igotzen den artista... Denetik dago txartel-degirako ilaran.

Txartela hartu eta trenean eser-tzea aski da, alta, Larrunera ez ezik, denboran barna bidaiatuko dugula ohartzeko. Trena egurrezkoa izateak eman digu abisua: Pirinioetako izeiez sendotu zuten teilatua, Landeseko pinuz tronadura, Ariègeko (jatorrizko okzitanieraz Ariéja) gaztainondo-estaldura, eta Afrikako usteldu ezinezko zurez plataforma. 1924ra jauzi egin dugula dirudi. Alabaina, batek daki zerk bultzatuko zuen gizakia trena mendi tontorreraino eramatera. Egun, AHT eraikitze-arnasten den antisia berak agian.

1908koa omen da gailurreraino-ko trenbidea eraikitze-ko buruta-

zioa. 1912an ekin zioten ideia gorputz eta arima gauzatzeari, baina lan administratibo astunak eta lau urteko gerra astunagoak 1919ra arte eten zuen saiakera. Obra 1924an bukatu bazen ere, ez pentsa dena samur eta zelai joan zenik.

**1908koa omen da
gailurrerainoko
trenbidea eraikitze-
ko burutazioa, baina 1912an
ekin zioten ideia
gorputz eta arima
gauzatzeari**

Urte hartako urtarilaren 7an, probak egiten ari zirela, lokomotora burdinbidetik atera zen istripua eragin eta egitasmoa kolokan jarri. Nahasi bezain urduriak izan ziren hurrengo hilabeteak, apirilaren 25ean Iturriederretarainoko zatia eta ekainaren 30ean tontorreraino-koa inauguratu zuten arte.

Trikuharri, mendizale, ardi, sai

Maldan gora abiatu, erretiratu landesek bide-ertzetik izerdi patsetan lasterka doan gaztea animatzen duten artean, paisaia gose ditut begiak. Pare bat trikuharri eta dolmen ageri dira urrutira. Martxa hone-tan, ardi latxak nola, auto-gibeleko pegatina bihurtzekotan diren pottokak lasai ederrean dabiltzala salatzen dute zintzarri hotsek. Nola ikusten ote gaituzte zeruetan itzuli-mitzulika dabiltzan saiek? Bezperan hildako kabala baten usainean dabilta, edo besterik gabe, postala edertzeko era-kartzen dituzte? Zer usteko dute Larrungo ezaugarria den harri eta lurraren gorri arrez?

Gustura galdetuko nioke txartel-degiko artistari nola islatzen duen gorri hori oihal zurian. Baina gauzak zer diren, altuera hartu ahala begien aurrean mazarrazen ari zaiguna baino ederragorik nekez pintatuko duela pentsatu dut nire baitan. Ezer izate-kotan, ederra baita Sara. Mendeak dituzten etxe gotorrak, mendiz inguraturiko bide-zidorrak, denbora eta





naturaren esku baizik ez dauden obrak... Geroz eta ttipiago ageri da dena, geroz eta libreagoa eta urrunagoa da ikusmira. Ez da alferrik Larrun itsasertzeko lehen mendi garaia. Hiru arnasa baizik ez daude hondartzatik 905 metroko altueran dagoen tontorrera.

736 metroko desnibela jaten du San Inazioko lepotik Larrungo askora garamatzen trenak. Erraz esaten da. Alabaina, ordu erdian, 4,2 kilometroko eta %25eko tartek dituen malda orduko bederatzik kilometroko abiaduran igotzea balentria bat da bere xumean. Kremailera sistemari zor zaion balentria. Kremailerak indarra egin dezan, ohiko trenbideari hirugarren errail hozkadun bat erantsen zaio erdi-erdian, trenaren errota bertan lotu eta bagoiek maldara itsatsita segi dezaten. Begiak maldara itsatsita dituztenak tren zale itsuak diren senar-emazteak dira. Frantziako Estatu osoan molde honetako hiru tren baizik ez direla gelditzen azpimarratu diote elkarri. Hirugarren errailari baino Hiru Iturrietako bidegurutzera so egitea probetxugarriagoa dela iduri zait niri.

Tren baten partez, bi

Hiru Iturrietan egiten dute bat Azkainetik, Saratik eta Urruñatik Larrunera igotzen diren bideek. Mendizale gehienek bertako oihaneko itzalpean biltzen dituzte azken txanpari ekiteko indarrak. Gailurrean ogitartekoa janda beheerantz datozenek burlaizez begiratzen diete goranzkoan mingaina dandarez darabiltenei. Hego-haizetan zabaltzen den erreka soinuak sosegatzen du giroa. Igoeran lehenbizikoz ikusi dugu itsasoa urrunean. Apenas antzematen diren hara eta hona dabilzan ontziak, Hondarribiko hondartza inguruko etxe-orratzak ikustearekin konformatuko gara oraingoz. Eta hori ere...

Ez bat, ez bi, goizegi gautzen duen egunetan nola, bistarik gabe geratu baikara goitik behera zetorren trena gure paretik harrigarriki igarotzean. Nork pentsatu behar zuen behinola tren baten partez bi ibiliko zirela mendi magaleko joan-etorrian? Zer ote diote gutaz bazkatzeko diren artean begiratu ere egiten ez diguten ardi muturbeltzek? Inbidia



Gida praktikoa

Prezioak:

Joan-jina 17 euro helduentzat eta 10 euro haurrentzat.

Egutegia/ordutegia:

Martxo erditik azaro hasierara arte dago martxan. Uztail eta abuztuan 8:30etatik 17:30etara, eta gainontzeko hilabeteetan 9:30etatik 11:30etara eta 14:00etatik 16:00etara. 35 minutu ateratzen da tren bat.

Bidaia ireaupena:

30 minutu.

Geltokiko telefonoa:

05 59 54 20 26

Webgunea:

www.rhune.com

ote diote Larruni ezkerretara ageri diren Pirinioetako gailur tantai zein Nafarroako tontor sorginduek? Trenak hemen utziko bagintu zenbater jarraituko genuke goraino oinez? Emazte paristar takoiduna txorkatila bihurritu gabe iritsiko ote litzateke?

Mugak baino gehiago pasabideak baitira mendiak, zeharkatzeko eginak, ibiliak eta erabiliak. Ez dago lur hauek mugarik gabe ulertzerik. Euskal nortasunean egindako zauri bat da muga, aduana, negozio legala zein kontrabandokoa, kontatu nahi edo ezin diren mila historia... Baina batez ere, muga izaera bat da, bizitzeko modu bat. Galdetu bestela

azken aldapa pikoa gainditu eta gailurreko geltokitik keinuka ari zaizkigun hiru bentei. Horixe da azken helmuga, hemen bukatzen da bidaia bat eta hemen hasten da beste bat.

Harrigarria baita Larrungo tontorrrak duen bizitza. Gelditu gabe dabil-tza zerbitzariak terrazatik barrara eta barratik terrazara. Zurrunbilotik ihesi, telebistarako antenaren oinetan eseri eta talaia panoramikoaren bila pausatu gara. Hondarribiko etxeorraztetatik Landetako hondartza salbaitarainoko sigi-sagak garbi-garbi ageri dira. Urruña, Donibane Lohizune, eta enparauak hatzekin ukitzeko moduan daude. Pasaia inguruko fabrikak sumatzetik Ibardinen pilatutako autoetara egiten du begiak. Amaigabeak dirudite Bortzirriak, Malerreka eta Baztan aldeko mendiak. Amaigabeak ingurumari osoko mendi-bide, zidor, eta pista amaraunek. Nahikoa da begiak ixtea, aitzina-ko ilargi beteko gauetan, 50 kiloko zakuak bizkarrean, alde batetik besterako lasterkariak irudikatzen. Gutxi behar du orotariko gerretako iheslariak tontor honetan hartuko zuten arnasa hartzeko. Dena dago bistan ikusi nahi duenarentzat.

Larrun Larun ere bada

Bistak-pista, ikustea entzutetik hasten da sarri, eta entzumena misterioz josita dago. Nola azaldu bestela Urruñan eta Saran Larrun dena Larun izatea Beran eta Lesakan? Kontrabandoko gau batean galdu ote zen r-a? Inguru horietan II. Mundu Gerra kari eraikitako bunker batean gordeta ote dago? Edo leendetako Larrungo herensugeak irentsi ote du? Larrungo maldetako behia-

lako sorgin festa eta akelarreetan traturik geratu ote zen? Edo Pierre de Lancreren inkisizioak erre ote zuen gure r-a? Jabetuko ote da istorio-mistorio horiez bikote gipuzkoarraren altzoan lokartu berri den haurtxoa?

Galderak airean heldu zaigu abiatzeko tenorea. Oinez jaistea aitatxi urruñarrek leporatuko didaten traizioaren zama arintzeko modua litzateke, baina egiten hasita, osorik egitekoak dira traizioak ere. Trena, pertsonen gisan, aldapa behera goraka baino azkarrago ibiltzen ote den pentsatzen sartu naiz trenera. Oraingoan, arreta desbideratu gabe, Korlandiako gotorlekua, Gorostiariako harrespilak eta Iturriederko zohikaiztegia preziatzen ahaleginduko naizela hitzeman diot nire buruari. Alferrik izan da, oinez igo eta beheranzkoan Jasolako bentan bazkaltzea bezalako planik ez dagoela aldarrikatzen pasadut bidaia. Aitatxi urruñar bat daramat barruan, nonbait.

Aitatxi urruñarrek, ordea, besteek bezain ongi dakite 90 urtekoak estimatzen duela bisita, eta ez dagoela 100. urteurrenaren ospakizunen zain egon beharrik berriz itzultzeko. Adin batetik landa gehiago balio du eguneroak aldian behingo festak baino. Eguneko azken trenaren etorrera sirenak hustu duen aparkalekuak ederriki daki bihar ere bisitak izango dituela. ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.

Berriztagarrien energia metatzeko sistema bila

BTEK



Panel fotovoltaikoak BTEK zentroan.

2013AN MARKAK HAUTSI ZIREN eguzki energia fotovoltaikoaren alorrean. Hala dio behintzat EPIAk, Europako Industria Fotovoltaikoaren Elkarteak. 38,4 gigawatt instalatu ziren, eta honezkero mundu osoan dagoen potentzia 138,9koa da. Baina zifrek gora egin arren, berriztagarriekin lotutako zenbait arazok beren horretan dira.

“Erronka nagusietako bat da eguzki eta haize energia baliatu ahal izatea eguzkirik eta haizerik ez dagoenean”, dio Xabier Diaz Silvestrek, Bizkaiko BTEK zentroko

zuzendariak. “Eskualde batean 100eko kontsumoa aurreikusten bada, eguzkirik eta haizerik ez dagoenean 100 horiek ziurtatzeko zentral termikoa eduki behar duzu instalatuta, panel fotovoltaikoez eta haize-errotez gain. Baina hori ez da bideragarria ekonomikoki”. Soluzioa da berriztagarriekin 150eko potentzia duen instalazioa egin eta 50eko soberakina pila-tzea, behar denean erabili ahal izateko. Zelan pilatu, baina?

Erronka horri aurre egiteko dauden egitasmoetako bat Zero Hytechpark proiektua da, energia gordetzeko bektore gisa hidrogenoak eskaintzen dituen aukerak aztertzen ari dena. Horren barruan dago BTEK, hain zuzen. Diaz Silvestrek azpimarratzen du helburua ez dela berehalakoan lortuko, baina denboraz iritsiko dela. “Uste dut arazoaren konponbidea ez dela hidrogenoa izango bakarrik, seguruenik teknologia bat baino gehiagoren konbinazioa izango da”. ■



Haurtzaroa ahaztearen zergatia

JIM PENUGGI-CC BY



KARRASKARIEKIN EGINDAKO hainbat esperimenteren bidez, Japoniako eta Kanadako zientzialariak biltzen dituen ikertalde bat oroitzapenak ezabatze mekanismoa argitzen saiatu da. Diotenez, neurona berriak sortzeko prozesua da erantzulea.

Bitxiena da neurona berriak eratzea ezinbestekoa dela oroitzapen berriak sortu ahal

izateko. Lehen uste zen jaio eta gero ezinezkoa zela neurona gehiago sortzea, baina gaur egun badakigu bizitza osoan zehar eratzen direla. Neurona sortu berriak lehenik existitzen ziren sareetan txertatzen dira, eta hori funtsezkoa da memoriaren funtzionamendurako. Baina aldi berean, konexioen berregokitzeak ahanztura ere eragiten du, aipatutako ikerlariak iradoki dutenez. Horrexek eragingo luke haurtzaroko gertakariez ez gogoratzea. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

Etxean estres handiagoa lanean baino

Senak aurkakoa dioskun arren, estres handiagoa dugu etxean lanean baino. Gure gorputzak hala jokatzeko du behintzat. Hori ondorioztatu dute Pennsylvania-ko Unibertsitateko ikertzaileek, 122 lagunek lantokian eta etxean jariatzen zituzten kortisol kopuruak konparatu ostean. Kortisolak estres egoerei aurre egiteko funtzioa duen hormona bat da.

ttiki.com/68205
(Frantsesez)

Ipar Amerikako kutsadura Europara iristen dela frogatu dute

Espainiako Ikerketa Kontseilu Nagusiko (CSIC) ikertzaileek, Ipar Amerikatik iritsitako kutsadura laginak aurkitu dituzte Europako zenbait menditan. Zehazki, altzariak eta gailu elektronikoak egiteko erabiltzen diren konposatuak atzeman dituzte, “umeen osasunerako kaltegarriak”. Kutsadura airetik iristen da Europara, Ozeano Atlantiko osoa zeharkatuz.

ttiki.com/68207
(Gaztelaniaz)

Txantxarren aurkako tratamendua minik gabe?

Londresko King's College ikerketa zentroko zientzialariak txantxarra sendatzeko metodo berria aurkeztu dute. Tratamendu horrekin, zulagailua, hortz-betegarria eta anestesia ez lirateke beharrezkoak izango. Hiru urte barru merkaturatu nahi dute.

ttiki.com/68208
(Frantsesez)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Fruitu arbolak

OSTEGUNEAN jasotzen dut postontzian ARGIA aldizkari hau. Ordurako, hurrengo ostegunean iritsiko denerako idatzitxoa bidalia dut eta hurrengokoari bueltaka ari naiz. Osteguna, japoniarrentzat *kei yobi*, zuhaitzen eguna. Ortzegunetan irakur itzazu. Ortzearen egunean, lurra eta ortzea eta tarteko gu lotzen gaituzten zuhaitzen egunean.

Betiko eztabaida hemen: zuhaitza edo arbola. Zeintzuk dira arbolak? Fruitua ematen dutenak, fruitu arbolak. Baina, igaliak ez diren fruituak ere badira. Zuhaitzei etekin ugari ateratzen zaie. Horiek denak fruitu. Egur ikatza egiteko mugarrotutako zuhaitzari kentzen zaion egurra, zuhaitz horren fruitua da, onuratsu askoa! Hernaniko Eñautek hala esan dit: Ereñozun “zuhaitz” deitzen zaio –lepatu, inausi, epaitu, mugarrotu, traxmoxtu, kimatu, izardakitu, modortu edo edonolako mozketarik pairatu gabea– zuhaitz lizarri; gainerakoak arbolak dira. Hau da, fruitu edo etekinen bat emateko moztzen den zuhaitza arbola bihurtzen da. Akademiaren batek esan beharko du arbola horri ere fruitu arbola dei dakiokeen... Gero, geuk nahi duguna deituko diogu.



CILLAS-CC BY SA

Zenbaitek muturrera eraman nahi izaten du zuhaitzen estetika. Topiaria esaten zaio zuhaitza moldatu, oratu eta forma emateari.

Zenbat etekin, izan ere, zuhaitzari kentzen dizkiogunak: egurra, zura, orbela, igalia, azala, izerdia... Eta aldamenekoak dio: eta oxigenoa, eta itzala, eta mugitzean sortzen duen haizea, eta txistu soinuak, eta txorrotxiolarien habiak, eta perretxikoak, eta...

Eta gozamen estetikoa. Begiak ere jan behar du, eta ikusmena jantzi. Zuhaitza inguruan izate hutsa ez ote da guretzat etekinik onena. Zenbaitek estetika hori muturrera

eraman nahi izaten du. Zuhaitza moldatu, oratu eta forma eman. Topiaria da, artetzat hartua. Zuhaitz apaintzaileak edo zuhaitz mozleak artista ikaragarriak dira. Ez da gauza bera pagoa (*Fagus sylvatica*) edo hagina (*Taxus baccata*) moztea. Zuhaitz bakoitza ezagutu behar da. Sortu nahi den forma erdies-teko, ehunka urte igaro beharko dira, agian. Eta, gero, gustatu egin behar... ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! Pinudi bat bota eta birlandatzeari ekin nahi nioke. Ene asmoa honako landareok baliatzea izango litzateke, printzipioz bederen, ez baitakit moduz inguratzea lortuko ditudanetz: pagoa, haritza, artea, *sorbus latifolia* (euskaraz nola esango genioke), zedroa (atlas, libano...) eta *sabina thurifera* (euskaraz?). Eta horretan nabilela zalantza bat sortu zait:

Nola egituratu, nola konfiguratu sailean zuhaitz mota guztiak? Erabat nahasirik? Ilaraka? Azpisail edo eremuka? Zenbateko distantziak gorde beharko nituzke ilara artean? Eta zuhaitz artean?

Ongi izan eta esker onez.

Joseba Mendia (Arriaran)

Kaixo Joseba. Nik eremuka egingo nuke. Multzoek ez dute karratuak izan beharrik, eta batetik besterako mugak zuzenak. Haritza epelenean eta lur ona den tokian, pagoa hotzean, hurritza ur ondoan eta fruitua biltzeko toki egokian –agian ilaran–, artea karaitza den tokian eta lur onetan, zedroa eta ipurua nonahi.

Hurritza, ipurua eta maspilzuria ertzetan, muga aldera jarri...

Tartearena asmatzea zailagoa da. Tarte txikiarekin jartzen dira normalean, eta gero bakantzen joan. Zuhaitz handiak izan arte bi edo hiru edo behar diren bakanketak egin. Horrela azpiari garbi eustea errazagoa da. ■

Homosexualak detektatzeko makina

KANADA, 1950. Gobernuak Zaldizko Polizian unitate berri bat sortzea erabaki zuen funtzionarioen artean gay zirenak detektatzeko: A-3 saila. Gerra Hotz betean, AEBetako eta Britainia Handiko gobernuko hainbat funtzionario SESBentzat espioi lanetan harrapatu berri zituzten eta horietako bi gay ziren. Kopuru hori nahikoa iruditu zitzaizen, nonbait, zera ondorioztatzeko: homosexualak aberriari traizioa egiteko joera handiagoa zuten. Gay gehienak ezkontuta zeuden beren joera sexuala ezkutatze eta horregatik etsaiek xantaia errazago egiten zieten. Horixe zen behintzat Kanadako Gobernuak A-3 sailaren jarduera zuritzeko erabili zuen argudioa.

Poliziaren unitate hark funtzionario guztiak, poliziak berak eta armadako kideak barne, ikertuko zituen, homosexualak berehala kaleratzeko eta, hala, espioitzaren mamua uxatzeko. A-3ko kideak funtzionarioak esesten eta gay klubetan nortasuna ezkutatuta infiltratzen hasi ziren. Baina hura metodo mantsoa eta garestia zen. Horregatik Carletongo Unibertsitateko psikologia irakasle Frank Robert Wakerengana jo zuten konponbide eraginkorrako baten bila.

Wakek homosexualak detektatzeko makina prestatu zuen. Batere graziaz gabeko kontuari umore ukitua eman nahian-edo, *Fruit Machine* esan zioten tramankulari; fruituen irudiak izan ohi dituzten txanpon maki-nei *fruit machine* esaten zaie ingelesez, eta *fruit* homosexualak izendatzeko esapide gutxiesgarri ugarietako bat da hizkuntza horretan. Funtzionario ikertuek dentisten



Kanadarren homosexualitate detektagailu guztiak suntsitu zituzten 1967an, programa bertan behera utzi zutenean. Baina beste herrialde batzuek gailu soilagoak erabili zituzten. Irudian, AEBetako ejertzitoak erabilitako "elektropsikometroa".

kitzikapenari. Eta azterketa hark Kinseyk osatu berri zuen eskalari ere ez zion jaramonik egiten. Ez zegoen grisik, zuria ala beltza soilik izan zitekeen emaitza; erabat heterosexuala ala erabat homosexuala; abertzale zintzoa ala ahalezko traidorea.

1959an John Wendell Holmes Kanadako diplomazialari bikainenetakoak makinaren argi gorria piztu zuen eta, ondorioz, lana galdu zuen. 1967ra arte ez zioten Torontoko Unibertsitatean lan egiteko baimenik eman.

Urte hartan erabaki zuen gobernuak programa bertan behera uztea. Wakeren makina guztiak suntsitu zituzten, baita programaren inguruko dokumentazioa ere. Testa gaingitu ez eta lana galdu zutenen kopurua jakitea zaila da, besteak beste, makinaren biktimak bidegabekeria salatzeke prest ez zeudelako. Gutxienez 400 kasu inguru baieztatuta daude, baina hainbat iturrik diote 9.000 izan zitezkeela. ■



Arrastoak

Nazismoaren kutsurik nahi ez zuten autoak



SIR WILLIAM LYONsek Swallow Sidecar Company motorgintza enpresa sortu zuen 1922an, Coventryn (Ingalaterra). Bigarren Mundu Gerra amaitu arte kapotaren aurreko aldean SS inzialek osatutako ikurra (argazkian) zeramaten enpresako autoek, baina gerraostean logotipo hark merkatuan mesede eskasa egingo ziela pentsatu zuten ardura-

dunek eta, nazismo kutsuak ahalezko erosleak uxatuko zituelakoan, enpresari izena aldatu zioten: Jaguar Cars. Kapotan metalezko felino oldarkorraren ikur ezaguna ipini zieten autoei. Gurean, aldiz, S bikoitzari eutsi zioten, besteak beste, Gipuzkoako autoen matrikulek (2000. urtea bitartean), eta Donostiako armariak, hala nola Realarenak. ■

«Europar Batasun politikoa ala kaosa, ez dago beste hautabiderik»

Azkoitia, 1947. Filologian eta hezkuntzan lizentziaduna da. Irakaskuntza eta idazletza uztartu ditu. Immanuel Kant eta Jürgen Habermas filosofoen jarraitzailea da. *Oi Europa!* bere saioak 2013ko Euskadi Literatura saria irabazi zuen. Zumaian bizi da. Bertan mintzatu gara.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco



MARX ETA JAINKOA. Munibe eta Ilustrazioa. Liberaltasuna eta euskalduntasuna. Kant eta Habermas. Erlijioa eta Etika. Hizkuntza eta Modernitatea. Jon Suduperen saiakeren adierazleak dira. Ez dira diktomiarako hitzak, egungo munduaren dilemei irtenbideak bilatzekoak baizik. Europa politikoaren erakuntza da egungo gure dilemetako bat. *Oi Europa!* liburuaren aitzakian, honetaz eta hartaz jardun dugu azkoitiar saioegilearekin.

Hizkuntza eta pentsamendua aurka-koak edota osagarriak izan daitezke. Pentsalari batzuei pentsamendua ahoratzerakoan hitza traba bihurtzen zaie. Zure kasua hori ote, akaso?

Bai. Georg Hegelen edo Koldo Mitxelena totalka aritzen zirela esaten zuten, zeharo aldrebesak zirela hitz egitean. Steven Pinker psikologo esperimentalak eta eboluzionistak dioenez, pentsamendua eta hizkuntza gauza bera dira. Aldiz, beste batzuek diote, hizkuntza lehenen-

goa dela eta pentsamendua ondorengoa. Pentsamendua gauza bat dela eta hizkuntza beste bat, alegia. Eztabaida handia dago horretaz. Egia da, askotan ideia bat duzu buruan, baina ezin duzu adierazi. Nire kasuan, hizkuntza eta pentsamendua ez dira bat, ez horixe.

Hizkuntzek etengabeko eboluzioa bizi dute. Pentsamenduan ere nolabaiteko eboluzioa izango dela pentsatzen dut. Zure kasuan ere bai?

Bai, noski. Ni Alemaniako filosofoek liluratu eta gidatu izan naiz, eta une honetan mundu anglosaxoiaren pentsalarien bidean ari naiz. Kanti ere hori gertatu zitzaion. David Hume britainiar filosofoak ateratu zuen lozorrotik. Horregatik, Darwin funtsezkoa da egun, eboluzionismoa ulertzeko eta haren alde egiteko arrazoi sendoak daude: biologia eta askatasuna dikotomiak osagarriak dira. Darwinen determinismo biologikoa eta genetikoa, eta gizabanakoaren autonomia eta norberaren askatasuna uztargarriak eta beharrezkoak dira. Egungo debata neurozientzia eta determinismoaren ildoan garatzen ari da.

Habermansek zer dio horretaz?

Harbermasek dio –kontsentsuaren teoriaren defendatzaileak– hizkuntza ez dela bakarrik elkar ulertzeko, ados jartzeko ere egina dagoela. Ni haren aldekoa naiz.

Noam Chomskyk berriz?

Chomsky ez da ideia horren aldekoa. Bere iritziz, hizkuntzaren funtzioa ez da hori. Hizkuntza desioak adierazteko dela dio, ez bereziki elkar ulertzeko eta akordioetara iristeko. Hizkuntza guztiak ñabardurak besterik ez dira, bere ustez. Ez bakarrik europarrak, indiar edo afrikarrak ere berdin. Adibidez, Marteko inor etorriko balitz, Indiar edo Alemaniara joan, edo Euskal Herrira etorri, hark esango luke hizkuntza berdina hitz egiten dugula. Hala ere, ni Chomsky zalea naiz arrazionalista delako.

Oi Europa! saioak Euskadi Literatura saria baino lehen Miguel de Unamunoren XIII. saria irabazi zuen. Idazlearen lana ezagutua izateko sariak ezinbestekoak al dira? Zertan dago saiakera?

Sariak pozbide handia dira maila pertsonalean, baina maila sozialean ez badago atzean editorial indartsu edo talde politiko bat ez duzu arrakastarik. Euskal saiakera egoera kaskarrean dago, bai euskaraz eta bai erdaraz. Euskal gaiak –euskara, euskal kultura eta nazioa...– dira hizpide nagusi. Gai unibertsalak –zientzia, filosofia, artea eta abar– ez dira ia jorratzen. Gurean, pentsamenduak erdaraz hitz egiten du, gehienbat. Alegia, guk geuk euskaraz idatzita ere, gure iturriak ingelese eta frantsesa dira, besteak beste. Nolabait, pentsamendua ez da ingelese edo euskalduna, pentsamendua berez unibertsala da. Yerry Fodor psikologoak *mentalese* terminoa sortu berri du. Psikologia funtzionalaren sortzaile honek gure hizkuntzaren oinarria eta jatorria *mentalese* dela dio, hizkuntza abstraktua. *Mentalese* terminoa, ingelesez *mentalese*, gogoeta da, nolabait esanda.

“Europak ez luke bere burua gutxietsi behar. Ez diogu orainaldiko krisiari bakarrik begiratu behar”

“Euskaldun izatea europartasunaren ñabardura bat da” esan zenuen Euskadi saria jaso zenuen egunean.

Gu europarrak gara. Europa da gure aberria. Hor daude gure sustrai guztiak. Euskal kultura (filosofia, zientzia, teknika...) europar kultura da, funtsean. Behar-beharrezkoa da gure iragana ezagutzea nor garen eta non gauden jakiteko. Greziatik eta Ilustraziotik gatoz, batez ere. Koldo Mitxelena ezin dotoreago esan zuen: “Gure berezitasuna ez da europartasunaren hezur-mamiei usaia eta kolore berezi-antzekoa ematen dien larmintz mehea baizik”. Ohiko dilema da: “Zer gara lehenengo, euskaldun edo europar?”. Heideggerrek ez ezik, Feleriko Krutwig euskaldunak bi kultur hizkuntza zeudela zioen: greziarra eta alemana. Europar zibilizazioa

handik dator. Gurean badira beste-lako ikusmoldeak, Humbolten eta errromantizismoaren ildoan. Joxe Azurmendi eta Txillardegik oso errromantikoak –izan– dira.

Zein da argitu beharreko debata?

Debatea erlijioetik etikara bidea egitea eta argitzea da. Batzuek gu kristautasunaren ondorio eta jarraipena garelako diote, eta beste batzuek diogu haustura eman dela. Darwinisten artean denak dira ateoak. Richard Dawkins, besteak beste, baina nahiz eta ateoak izan, erlijioak eginkizunen bat izan duela aditzera ematen dute. Indar handia izan duela, eta biologiatik aztertu behar dugula.

Víctor Gómez Pin filosofoaren ustetan –*El hombre un animal singular*– en egilea, gu gizakiok apartekoak gara, singularrak eta bereziak, gorputza eta arima ditugu. Dualismoa hori da, eta arima inportantea da. Darwin heldu da berriz eta jarraitzaileak ditu. Ni bat nator.

Joxe Azurmendik *Gizona abere butsa* da idatzi zuen aspaldi. Oso saio ausarta. Azurmendik gizakia animalia dela esaten bukatu zuen, baina berezitasunak dituela ere esan zuen. Hau da, kantiarrek diogu badugula askatasuna erabakitzeke etika bat, eta determinismo biologikoa guztietan etikarako tartea dagoela gogoeta egiteko. Animaliek egin ez dutena. Gogoeta egin dezakegu zer garen, zer egin edota zer aukeratu dezakegun erabakitzeke. Hori da gure berezitasuna.

Habermasen jarraitzailea zara. Abertzaletasun Konstituzionalaren ildoak. Kontzeptuak zer esan franko eman du. Egingarria al da komunitate moral postnazionalik?

Ilustrazioaren garaitik hasita, Europaren izaeraz gogoeta egin dute filosofo handienek. Ez dute tratatu handirik idatzi, gehienetan testu laburrak egin edota hitzaldiak eman dituzte. Gaur egun ere, tarteka, argia ikusten du horrelako lanen batek –Habermas, Sloterdijk edo Zizek-enak–. Baina, oro har, ez dago Europari buruzko eztabaida filosofiko sakonik. Ekonomia eta politika nagusitu dira. Pentsalari handiak –Erasmoren gendak hasi eta Habermasengaino– unibertsalistak izan dira,





"Pentsamendua ez da ingelesa edo euskalduna, pentsamendua berez unibertsala da".

europar identitate moralaren aldekoak. Leibnizek ondo adierazten du jarrera kosmopolita hori. Sortzez alemaniarra zen, baina espirituz europarra. Nazioz gaindiko identitate moral hori eraiki daiteke. Horixe besterik ez da Habermasen *Abertzaletasun konstituzionala*, demokrazian eta giza eskubideetan oinarritutako identitate "postnazionala".

Hala ere, Europa kontraesana da, eta europarrok kontraesankorrak.

Europa, lehenik eta behin, ideia bat da, kultura bat. "Irudi espiritual bat", Edmund Husserlek esan zuen bezala. Espazio geografikoa baino gehiago da, identitate espiritual bat da. European sortuak dira arrazionaltasun zientifikoa, zuzenbide eta ongizate estatua, giza eskubideak... Geroztik, balore horiek munduko herrialde guztietara zabaltzeko dira. Europa hobekien definitzen duten baloreak ez dira dagoeneko europarrenak soilik. Jadanik europarra bakarrik ez den zibilizazio baten jaioeterriz izatea da European berezitasuna.

kolonialismoa eta basakeria. Konkistatzaileen aurka, amerikar indigenen defentsa sutsua egin zuen. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala European ondare lagaezina da honezkero.

Azkoitiarra zara. Ilustrazioaren zalea, Azkoitiko Zalduntxoek jarraitzailea...

Marxismoa krisian sartu zenean, Ilustrazioa jo nuen, gure sustrai modernoetara, alegia. Orduan sortu ziren gure gaurko ideia eta balore politiko, etiko eta kultural nagusiak: askatasunaren lehentasuna, berdintasunaren defentsa, zientzia eta teknikaren garrantzia, kritika eta autokritikaren erabilera. Horiek eguneratzea da oraingo intelektualetan eginkizuna, Ilustrazio berri bat sortzea, alegia, *Azkoitiko Zalduntxoak* ongi ohartu ziren Europa zela gure arazoaren soluzioa. Jakintza eta teknika berriak ekarri nahi izan zituzten hona. Horregatik esan zuen Pio Barojak guk jarraitu behar genukeen tradizio on bakarra zela *Euskalerriko Adiskideena*.

Bere ekarpen eta emaitza bereziak munduan barrena barreiatu ditu. Eta hori ez da etnozentrisismo inozotzat hartu behar. Europak ez luke bere burua gutxietsi behar. Ez diogu orainaldiko krisiari bakarrik begiratu behar.

Oi Europa! liburuan aipatzen dituzdan filosofoak ez dira europazale inozoak izan. Gehienak kritikoak izan dira Europarekiko. Baina, kritiko izateak ez du antieuroparra izatea esan nahi. Kolakowskik zioen moduan, autokritikarako gaitasuna da European ezaugarri berezia. Diderotek, esaterako, gogor salatu zituen europarren

Saio berritzaile hark huts egin zuen, ordea.

Zoritzarrez. Independentzia gerrak eragin handia izan zuen, herriko jendea oso kontra jarri zen, Eliza eta indar nazionalistak bereziki. *Euskalerriko Adiskideena* delakoaren gehiengoak *jauntxoak* ziren, bestalde. Iñigo Aranbarrik idatzi du hori azalduz edo salatuz nolabait.

Perez Iglesias irakasleak "Argien Mende berri baten atarian egon gaitzkeela" esan berri du. Bai ote?

Baliteke. Filosofia egiteko aintzat hartu behar dira zientziaren aurrerapenak. Zientziaren euskarririk gabe, filosofiak ezin du aurrera egin. Genetika eta neurobiologia –neurozientzia– bezalako diziplinak ezinbestekoak dira betidaniko galdera filosofikoei erantzuteko. Ikasketa klasikoek multzoan integratu behar litzateke eboluzioaren teoria darwinista ere. Filosofiak eta zientziak txanpon beraren bi aurpegiak izatera itzuli beharra daukate, garai batean bezala. Natur zientzien eta giza zientzien arteko zatiketa gainditu egingo litzateke horrela. Esaterako, David Sloan Wilson eboluzionista, *La nueva ilustración* liburuaren egilea, antzina-ko filosofiara itzultzen ari da. "Ilustrazio berrian" sartu garela esan ahal izango dugu.

European azken aukera artikulua idatzi duzu berriki Berria egunkarian. Etsipenez, nolabait.

European egoerak tristura handia eragiten dit. Zorroztasun politikak galbidera darama Batasuna. Horregatik ugaltzeko dira euroeszeptikoak eta eurofoboak. Ezinbesteko da aldaketa sakon bat. Azken hauteskundeetatik sortutako Parlamentu berria European azken aukera izan daiteke. Sakabanaketak eta txokoke-riek arriskuan jartzen dute Europar Batasunaren proiektua. Gaurko nazioarteko egoerak batasunera bultzatzen ditu nazio europarrak. Nazionalismoa European hondamendia da. Amerikarren eta asiarren aurrean, gero eta premiatsuagoa da europarren batasuna, ekonomikoa nahiz politikoa. Batasun politikoa ala kaosa, ez dago beste hautabiderik. ■



LANGILEEN ESKUBIDEAK

Arma zaharrak, garaipen berriak, borroka bera

Berlinen, mundu osoko langileek eta sindikatuek hainbat biltzar egin dituzte lan baldintza duinen aldeko borrokak aztertzeko. Jendartearen eta langileen arteko elkartasuna giltzarri da egun ere, borroka horiek irabaziko badira. Arrakastatsu suertatu diren adibideak badaude, ikusi besterik ez dago zer gertatu den Rio Tinto meatzaritzako multinazionalean, Italiako Piacenzako Ikean, eta Bosnia-Hertzebovinako Dita detergente enpresan.

| MARIA GONZALEZ GOROSARRI |



KRISIALDIAK EUROPA egiazatu du lan jarduna bizitzeko bestekoa ez dela eta, hala ere, lan baldintzek okerrera egin dezaketela. Azken mendeant lortutako eskubideek atzera egin dute, baina XXI. mende teknologikoan langileak XIX. eta XX. mendeetako borroka-tresnak berrerabiltzen hasi dira. Berlinen maiatzean mundu osoko langileak eta sindikatuak elkartu dira, nazio-arteko langileen egoera aztertzeko, hiru erakundek deituta: lan borrokkak ikertzen dituen Global Labour Universityk, Sindikatuen Nazioarteko Konfederazioak (ITUC) eta LabourStart munduko lan borrokei buruzko sareak.

Munduan nagusitu diren eta porrot egin duten borrokkak aztertuz, protesta emankorra izateko baliabideen inguruan eztabaidatu dute Donna McGuire eta Wilfried Schwetz Global Labour University-ko ikerlariak. Lehenengo eta behin, langileen eskakizuna arrakastatsua goa izango da, egoera jakin bat hobetzeko konponbide legez aur-

kezten bada. Bigarrenik, beharginen borroka horretan parte hartzeko haien prestutasuna izatea ezinbestekoa da. Sindikatuek euren kabuz hartutako erabakien desabantailak azaldu dituzte ikertzaileek, beharginek eskakizuna euren egiten ez badute, bidean desmoralizatzeko aukera handiagoa dagoelako. Era berean, etor daitezkeen zatiketak aurreikustea komeni da, botere borrokek helburutik alboratu ez ditza-ten. Hirugarrenik, baliabideei erreparatzea oinarritzko suertatzen da. Protesta babesteko diru-iturriak ez ezik, euren errebindikazioarekin bat egin dezaketen eragileak erakartze-ri garrantzia handia eman diote, borroka jendartera zabaltzea alegia.

Jendartearen inplikazioa

Langileez gaindiko elkartasuna lortzeko hiru adibide osatzen dute Rio Tinto, Piacenzako Ikea eta Tuzlako Dita enpresetako beharginek. Rio Tinto meatzaritzako transnazional erraldoian langileak abiatutako protesta jendartean zabaltzeko, tokian

tokiko babesa bilatu dute. Adam Lee IndustriALL nazioarteko sindikatuko elledunak adierazi bezala, Rio Tintok meategiak dituen herrietan —munduko bost kontinenteetan—, haren jarduerak ingurugiroari eragiten dion kaltea gutxitzeko har litezkeen neurriak azaldu ohi dituzte. Hala, langileen haserreari, tokian tokiko biztanleen sumina gehitzen zaio, neurri ekologikoak eta osasuntsuagoak eskatzeko.

Piacenzako Ikea altzari-dendako langileek, ordea, sektore bereko gainerako beharginen babesa bilatu dute, Berlingo jardunaldietan izandako ordezkarien hitzetan. Ikeak azpikontrataturako CGS garraio enpresan etorkinek italiarrek baino soldata txikiagoa zutela eta sindikatuetan parte hartzeko eskubidea ukatzen zitzaizela salatzen, Piacenzako dendan hamabi langilek itxialdia egin zuten. Denda horretan guztira 300 lagun inguruk lan egiten duela kontuan izanda, protesta txikitzat har daiteke. Hala ere, enpresak hamabi langileak kaleratzean,



LA BATUSA BLOGA

Italiako Piacenzan, Ikeako langileak altzari-dendako ataria blokeatzen ari diren bitartean, polizia haien aurka oldartu dira. Piacenzako saltokian, azpikontrataturiko CGS enpresak hamabi lagun kaleratu zituela-eta hasitako protesta Ikearen Italia osoko dendetara zabaldu zen. Multinazional suediarrek langileak berkontratatu zituen.

gia delako, dela protestaren bidera-garritasuna bertan dagoelako, Adam Leek azpimarratu bezala. Boloniako (Italia) Granarolo esnekien multinazionalako langileen borroka horixe egiaztatu du. Azaroan enpresak soldaten %35eko murrizketa abiatu nahi izan zuenean —hileko soldata 700 eurora jaitsiz—, horren aurka borrokatu ziren 51 langile kanporatu zituen. Orduan, langile gehiago batu zen, beharginak berkontratatzeke. Esnekiak denbora laburrean kontsumi daitezkeen produktuak direnez, horien garraioa tratatzeak enpresari kalte handiegiak ekarri zizkion. Langileek kalkulatu zutenaren arabera, lauzpabost orduko grebak 200.000-300.000 euroko galera izan zitekeen.

Europako langileei, elkartasun eske

Lan eskubideak errespetatzen ez dituen enpresa zenbat eta ezagunagoa izan, orduan eta oihartzun handiagoa izaten dute prototestek. Are gehiago, langileak antolatzeke eskubidea tratatu edo ukatzen duten herrietan, nazioarteko kanpainak garrantzia azpimarratu dute izenik jakitera eman ezin dezaketen Turkiako eta Pakistango beharginak. Turkiako langileek, adibidez, Alemaniako metalgintza sektoreko mobilizazioek haien lan baldintzak hobetzeko balio izan dutela azaldu dute, “Turkiako Estatuaren eragozpenak” gainditzeko indarra zutelako. Era berean, Pakistango beharginak Pepsi Smash kanpaina abiatu berriarekin bat egin zuten, “ez bakarrik Pakistango langileen eskubideak errespetatzeko, Ohioko (AEB) beharginen osasun-neurririk ez murrizteko”.

Kapitalismoak etengabe bidegabekeriak sortzen ditu munduan eta Europan, noizean behin, krisialdiak. ■



Italiako beste Ikea denda batzuetan ere protestatzen hasi ziren beharginak. Are gehiago, enpresak eroslee-kin komunikatzeko dituen tresnak erabili zituzten. Esaterako, *Ikea hobetzeko* interneteko kanpainak milaka erantzun jaso zituen “oinarritzko lan eskubideak errespetatzeko” leloarekin, enpresak webgunea blokeatutzat eman arte. Lau hilabete eta gero, langileak berkontratatu zituzten.

Langileek jendarteko beste eragileen elkartasuna ere lortu izan dute, Bosnia-Hertzeogovinako Dita detergente enpresarekin gertatu bezala. 2014ko otsailean, Tuzla herrian bost enpresa pribatizatu nahi izan zituztenean (Dita, Polihem, Poliolhem, GUMARA eta Konjuh), langileek jakin zuten ez zietela inoiz gizarte-kontribuziorik ordaindu. Langabezia soldata ez ezik, jubilazio pentsiorik ere jasoko ez dutela egiaztatzean,

manifestaziora deitu zuten langileek. Polizia gehiegikeriaz oldartu zitzairen eta horrek ikasleen eta beste eragileen erantzuna piztu zuen. Ondorioz, Bosnia-Hertzeogovinako herritarrek gobernuaren ustelkeria kritikatzeko protesta jendetsuak abiatu zituzten. Langileek, baina, nazioarteko hedabideen arreta eza kritikatu zuten, aginte politikoaren aurkako matxinaden berri ematean langileen protestak kontuan hartu ez zituztelako.

Langileen eskubideak errespetatzeko borrokek, gainera, enpresaren irabaziak jomugan izaten dituzte, dela lan baldintzekiko aldea handie-

Azken mendean lorturiko eskubideek atzera egin dute, baina XXI. mende teknologikoan langileak XIX. eta XX. mendeetako borroka tresnak berrerabiltzen hasi dira

MERKATARITZAKO KANPAINA IRUÑERRIAN

Dendariek ere euskaraz nahi dute

Gares eta Iruñerriko 252 saltokik sinatu dute *Euskara merkataritzara* hitzarmena. Merkatariorietako bi dira Amaia Aizpun eta Anabel Larrayoz, lehena arte tailerraren jabea eta bigarrena ostalaria. Harro daude euskarari ateak zabaltzeko.

Testua eta argazkiak:

| EIDER MADINA BERASATEGI |



Ezkerretik eskuinera, Anabel Larrayoz eta Amaia Aizpun. Haien negozioetan euskarak tokia izan dezan saiatzen dira, garbi baitaukate euskarak kendu baino eman egiten diela.

TXALAPARTARI PAREA eta *Gure hizkuntza, gure soinua* esaldia jasotzen dituen marrazki handi batek jantzi du orain gutxi arte Garesko erakusleirako bat. Amaia Aizpunen Arte eta diseinu tailerreko ataria da.

Denda barruko artelan modernoetan ere euskal tradizioko hainbat zertzelada ikus daitezke. “Sarritan gure izaera eta sustraiak erakusten ditu arteak eta euskaldunentzako keinu moduko bat izan daitezke”, dio Aizpunek.

Margolanak, eskultura, pintura, diseinu grafikoa, bitxi eta apaingarriak... jakintzagai ugari lantzen ditu artista gazteak; eta haur zein helduentzako marrazki eta pintura

tailerrak ematen ditu bertan. Orain hiru urte denda ireki zuenean sartu zen *Euskara merkataritzara* proiektuan.

Salerosketetako hizkuntza harremanak ditu abiapuntu 1994an sortutako programa horrek. Euskararen erabilera bultzatzeko helburuarekin jaio zen Burlatan eta gutxinaka, beste hainbat herriren atxikimenduak jaso ditu. Guztira hamar dira planarekin bat egin duten toki entitateak: Antsoain, Aranguren, Atarrabia, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Gares, Oltza Zendea, Uharte eta Zizur Nagusia.

Euskara eta berrikuntza soziala ardatz dituen Emun kooperatiba

arduratzen da kanpainaren kudeaketaz udalerrietako teknikariekin batera. Orotariko komertzioek hartzen dute parte: ileapaindegia, tabernak, loradendak, fisioterapeutak edota Aizpunena bezalako arte tailerrak.

“Oro har, herri euskaltzalea da gurea, baina euskal hiztunak ez gara hainbeste”, baieztatu du garestarrak. Horregatik orain arte ez da tailerretarako talde euskaldunik eratu. “Adin edo maila antzekoa, ordutegiak, hizkuntza eta modalitate bera landu nahi dutenak elkartzea nekeza da oso, gehienbat herri txiki batean”.

Tortotxiki fundazioarekin elkarlanean lortu du haurrentzako taile-

rrak euskaraz ematea. “Garesko euskararen normalkuntzan lan handia egiten du erakunde horrek, helduekin AEK-k egiten duen bezalaxe”.

Hori dela eta beharrezko ikusten ditu *Euskara merkataritzara* bezalako proiektuak. “Gure hizkuntza kalera ateratzeko garrantzitsua da dendariek eta jendaurrean lan egiten dugunok euskara ikasi eta erabiltzea eta kanpaina honek horretarako baliabide egokiak eskaintzen ditu”.

Hizkuntza teknikariek zuzeneko harremana dute merkatariekin, norberari egokitutako plana zehazteko. Lantzean behin bisitak egiten dituzte saltokietara bertako egoera linguistikoa jaso eta euskararen erabilerara sustatzeko urratsak adosteko.

Hitzarmena sinatzen duten saltzaileek ez dute euskaraz jakin beharrik. Norberak erabakitzen du zein den hartu nahi duen konpromiso maila.

Udalek diruz laguntzen dute programa, eta beraz, merkatarientzako doakoa da. Itzulpen eta aholkularitza zerbitzuaz gain baliabide materialak ere banatzen zaizkie. Besteak beste, ordutegiak, ‘zabalik’ edo ‘itxita’ ipintzen duten kartelak, informazio orriak, beherapenen afixak, kanpaina eta data berezietako iragarkiak. Gainera, euskara ikasteko erraztasun eta diru-laguntzak eskaintzen zaizkie dendariei; eta azken urteetan asko dira klaseetan hasi diren saltzaileak.

Tabernariak lehen hitza euskaraz

Anabel Larrayozen kasua da hori, Artikako kultur etxeko taberna darama berak eta euskara ikasteko saiakera ugari egin ditu. Euskaltegia, Hizkuntza Eskolan eta merkatariei eskaintako eskoletan ibili da, besteak beste. Azken horretan ordutegi arazoak izan dira oztopo nagusia; eskolak eguerdian izanik bateraezina zaiolako ostalaritzako lanarekin.

Hala ere, ez dio ikasteari utzi eta herriko talde batekin elkartzen da astelehenero euskara landu eta mintza praktika egiteko. Ikasturte garaian kultur etxean batzen dira herriko irakasle batekin; eta udan bere tabernan elkartzen dira euren kabuz.



“Gure hizkuntza, gure soinua” erakuslehoi deigarria “Euskararen papparaziak” kanpainarako diseinatu zuen Aizpunek. “Euskara merkataritzara” ekimenak Karrikiri elkartearekin batera lehiaketa antolatu zuen. 97 argazki aurkeztu ziren eta Iruñeko Katakraken erakuslehoari ateratakoak eskuratu zuen 500 euroko erosketa bonoa. Eskuinean, Larrayozen tabernan aurki daitezkeen azalpenak.


Ilobekin ere euskaraz saiatzen dela dio, baina haiek “amona, euskaraz gaizki egiten duzu” erantzun eta gaztelaniara jo ohi dutela aitortzen du. “Haiek ikastetxean hitz egiten dute euskaraz, baina handik kanpo oso gutxi, etxean ez dutelako aukerarik. Hortaz, arlo akademikoarekin lotzen dute hizkuntza; eta pena da”.

“Mentalitatea aldatzen ari dela uste dut, euskararekiko errespetua nagusitzen ari da azken aldian”

Anabel Larrayoz, tabernaria

Horren ildotik aipatzen du “merkataritzak gure herrietako paisaia linguistikoa eragin handia” duela. “Saltzaileek agurrak eta oinarritzko gauzak euskaraz esango balituzte hizkuntza biziago egonen litzateke”, defendatu du Larrayozek. “Umeek eta jendarte osoak kaleko hizkuntza bezala ikusiko lukete, eguneroko jardunean erabiltzekoa”, gaineratu du.

Artikako ostatuan oinarritzko zenbait esaldi euskaraz nola esaten diren biltzen dituzten kartelak daude paretetan, eta askok begiratzeko omen diote jakin-minez. “Dudarik gabe *Hau etxearen kontura* esaldia da arrakastatsuen, egunero esaten baitit baten batekin”, dio txantxetan tabernariak. “Jendeak kartelari erreparatzen dion seinale da hori, eta batzuk euskaraz eskatzen ere saiatzen dira”, gaineratu du.



Larrayozen aburuz, “bezero euskaldunek eskertzen dute euskarazko errotuluak, oharrak eta kartelak ikustea. Espazioa arnasmune moduan identifikatzen dute. Gainera, ongi egin ez arren gustatzen zaie euskaraz ikasten ari naizela jakitea, haiekin saiatzea. Ilusioa egiten die”.

Euskara ikasleei lotsagatik euskaraz solastea asko kostatzen zaiela uste du ostalariak. “Konplexuak alde batera utzi eta ahalik eta gehien erabiltzera” animatu nahi ditu merkataria euskaldun berriak.

Hala ere, euskaldun askok ikasten ari direnekin duten pazientzia faltaz kexu da Larrayoz. Bera oinarritzko kontuetan ongi moldatzen dela dio, jendea agurtu, zer nahi duen galdeatu, kobratu eta abar. “Baina elkarrizketa hasi eta apur bat kostatzen zaidala ikusten duten bezain pronto hizkuntzaz aldatzen dute”.

Urte hauetan guztietan ez duela egitasmoaren kontrako jarrerarik nozitu esan du artikarrak. “Mentalitatea aldatzen ari dela uste dut, euskararekiko errespetua nagusitzen ari da azken aldian”.

Aizpunek ere, bide beretik dio ekimenak ez diola inongo eragozpenik ekarri: “Garesen bada portzentaje bat euskararen kontrako jarrera duena, baina zorionez gutxiengoa da”.

Bere ustez euskararekiko atxikimendua “plus bat da, zerbitzua hobetzeko modu bat”. Ateak itxi baino aukerak zabaltzen dizkiola uste du, berari interesatzen zaion publikoarengana iristeko bide izan daitekeelako. ■



Eusko Jaurlaritzak atea ireki die zulatzaileei Gasteizko Mendietan

Hautsak harrotu ditu Gasteizko Mendiak parke natural ez izendatzeko EAEko Ingurumen Sailak hartutako erabakiak. Horren ondorioz, Subillan haustura hidraulikoko lehen bi putzuak irekitzeko asmoak indarra har dezake berriz.

| UNAI BREA |

Argazkia: Axier Lopez

HEGO EUSKAL HERRIKO zati handi bat dago haustura hidrauliko bidez gasa ustiatu nahi duten enpresen jomugan. Araba eta Bizkaiaren kasuan, ia lurralde osoa. Gauzak astiro doaz ordea. Bistan da oraindik ez direla zulatzen hasi; eta zulatzen hasteko unea atzeratuz doa gainera. 2007rako lehen putzuak egiteko asmoa zutenek nekez pentsatuko zuten 2014 ere makinak lanean jarri gabe joango zitzaienik.

Munduko bazter honetan frackingaz hitz egiten hasi zenean, begi guztiak Subilla herritik gertu dagoen eta alboko argazkian ageri den zelaia begira jarri ziren, aurreikusita baitzegoen lehen bi putzuak han egitea. Baina hala egin nahi zuten enpresek bazuten zalantzarako arrazoirik. Aipatutako eremua Gasteizko Mendien barruan dago, eta oraintsu arte Gasteizko Mendiak parke natural bihurtzeko tramiteak martxan izan dira. SHESAren (hidrokarburoen EAEko enpresa publikoa) eta Heyco eta Cambria konpainien arteko bileretako akte-tan irakur daitekeenez, 2007an Heycoko presidenteak galdetu zuen ea ingurumen aldetik oztoporik egon zitekeen frackingerako; SHESAko ordezkari batek erantzun zion Gasteizko Mendiek etorkizunean lor zezaketen babes araudiarekin kontuz ibili beharko zutela. Babes hori gauzatzeko urratsak eman ahala, Subillan bi putzu zulatzeko asmoa bazterrean geratu zen.

Ingurua parke natural izendatzeko prozedura nork eta PPK bultzatu



Euskal Herriko lehen bi fracking putzuak Gasteizko Mendietako paraje honetan egitea aurreikusita zegoen. Eremua parke natural izendatzeko prozedurak asmoa bertan behera utziaz zuen, baina azkenean babesik gabe geratu da ingurua.

du, Gasteizko Udaletik. Hara non baina, azkenik ezetz esatea erabaki duen Jaurlaritzak. Parke natural ez, Europako babes-eremu kategoria, ahulagoa, emango zaie Gasteizko

Subillako zelaia, hala nola Gasteizko Mendien bost seiren, lege-babesik gabe geratu dira

Mendiei, eta hasieran aurreikusita-ko gainazalaren zati txiki bati besterik ez. Argudio nagusia da aintzat hartu dituztela inguruko herrietako lehen sektoreko langileen alegazioak, haiek ez baitzuten nahi babes figura sendo bat ezartzerik, horrek

euren jardun ekonomikoa oztopatuko zuelakoan.

Kontua da Subillako zelaia, hala nola Gasteizko Mendien bost seiren, lege-babesik gabe geratu direla. Zulatzaileek libre dute bidea. Haustura hidraulikoaren gorabeherak gertutik jarraitzen dituen Iker Armentia kazetari arabarrak txio-katu du: Jaurlaritzaren mezua da ez dela komeni Gasteizko Mendiei babes handia ematea, etekin polita eman dezakeen ingurua baita. Diskurtsoan nolabaiteko anbiguetateari eutsi badio ere, ekintzek garbi erakusten dute EAJ frackingaren aldeko posizioetara lerratuz joan dela —inoiz kontra egon bada—, Lakuara itzuliz geroztik. ■



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak iazko kopuru bereko diru-laguntzak aurkeztu ditu

BERANDU BADA ERE Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurkeztu ditu 2014ko diru-laguntzak. Iazko kopuru bera izango da: 43.358.630 euro. Bi zatitan banatzen da kopurua: 41.068.000 euro diru-laguntzetan eta 2.290.630 euro hitzarmenetan. Aurten, deialdi berria sortu du HPSk eta nagusiki gaztelaniaz aritzen diren hedabide idatzien edizio digitaletan euskara gehiago erabiltzeko 180.000 euroko diru-laguntza emango du. Diru-laguntzak banatzerakoan printzipio nagusi bat aplikatuko du aurten HPSk: eraginkortasun printzipioa. Euskara bultzatzeko proiektuek kontsumitzaileentzat eraginkorrak beharko dute izan.

Hamar deialditan banatzen dira diru-laguntzak:

- **HABE (helduen euskalduntzea):** 30.896.000 euro. Diru-laguntza guztien %71 da.
- **Euskalgintza:** 979.200 euro. 131 proiektu lagunduko dira.
- **Euskarazko hedabideak:** 4.875.000 euro. HPSk adierazi duenez, laguntzak emateko irizpidea aldatuko dute. Iaz arte hedabideen zabalkundeari eta produktuen kalitateari begiratzen zioten. Aurten aldiz, hedabide bakoitzak duen eremua kontuan hartuko da eta eremu horretan duten irismen maila neurtuko da. Alberto Barandiaran Hekimeneko zuzendariak diru-laguntzei buruzko balorazioa egin du eta hala esan du: “HPSk adierazi du 2015etik aurrera urte anitzeko diru-lagun-



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Hekimeneko (herri ekinbideko euskarazko hedabideak) ordezkariak 2012an.

tzen deialdietako irizpideak sektorearekin eztabaidatzeko konpromisoa, eta sektoreak ontzat eman du. Hekimenen ustez, eztabaida hori funtsezkoa izango da egoera larriari buelta eman eta sektoreak eskatzen duen apustuan aurrera egiteko”. Barandiaranek azpimarratu du bi urtez jarraian hedabideentzako diru-laguntza kopuruak ez duela igoerarik izan.

-**Nagusiki gaztelaniaz ari diren hedabide idatzien edizio digitaletarako:** 180.000 euro.

-**IKT:** 807.500 euro

-**LanHitz:** 1.944.800 euro

-**EBPN/ESEP:** 1.385.500 euro

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Iberdrolak bere fronte mediatikoa saritu du

JOAN DEN ASTEAN JAKIN GENUEN Euskal Herrian jatorria eta egoitza duen Iberdrola elektrika enpresak Espainiako Estatuko 40 kazetari kualifikaturen bidaia ordaindu zuela Brasilgo Futboleko Mundu Kopara joateko. Bitartean, konpainiak argindarra moztu zien Espainiako Estatuan 578.000 familiari eta Brasilen 2 milioi laguni, fakturak ez ordaintzeagatik.

Ez da “lan bidaia” izan, adibidez Iberdrolak Brasilen dituen instalazioak ezagutzeko, edo enpresa bat erosi dutelako, edo urteurren baten ospakizuna jarraitzeko. Halakoetarako ekonomian adituak diren kazetariak gonbidatzen dituzte –krisia dela-eta gero eta gutxiago—. Iberdrolak 40 kazetari horiei ordaindutako bidaia plazerezkoa izan da, patriotikoa, eta La Roja babesteko helburuz.

Eta zein dira Iberdrolak saritutako 40 kazetari pribilegiatu horiek? Hau idazten ari garen unean erabat ezezaguna zaigu kazetarien zerrenda osoa. Hala ere, jadanik publiko egin diren izenen artean daude irrati, egunkari eta telebistetako tertulien bidez iritzia sor-

tzen duten nukleo gogorreko kazetariak. Ez dira ohiko informatzaile ekonomikoak. Iberdrolak ez badu esplikatzen zergatik saritu dituen pribilegiatu horiek, pentsa genezake Galáñen konpainiak hedabideetako elitearen konplizitatea bilatu nahi duela, bere pentsaera eta estrategiatik gertu dauden horiena hain justu. Ez da ahaztu behar aurki energiaren inguruko erabakiak hartuko dituela Espainiako Gobernuak. Honek, energia nuklearraren alde segitzen du, zahar- kitutako Garoña barne. Iberdrolak hedabideetako elite horren beharra dauka, irudi “berdea” eman eta etekinak pilatzen segitzeko. Kazetarien plazerezko bidaia Munduko Futbol Kopara ez da lehena izan eta ez da azkena izango. Iberdrolak, beste edozein multinazional bezala, fronte mediatikoa behar du, eta horretarako ondo zaindu beharra dauka.

Juan Mari Arregi



G77-ko herriak alternatibak eraiki nahi eta ezinean

G77+Txina etiketapean bildu dira joan den asteburuan Bolivian munduko 133 herrialde, gehienak txiroak, batzuk indarrean datozen “emergenteak” eta bakarren bat aberatsa. Denen artean Evo Morales ahalegindu da biziberritzen duela mende erdi, herrialde ez-lerrokatuen mugimendua izan zenaren antzekoa *Vivir bien* goiburuaren inguruan.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

EVO MORALES EZ DA BILL GATES. Honen keinu txikiena beti da *mainstream*. Moralesi, aldiz, lortu arren elkartzeari 129 herrialdeko ordezkariak, tartean 15 lehendakari eta bost lehen ministro, halaz ere hedabide nagusiek apenas eskaini dioten minuturen bat. Eta hori, Nazio Batuen Erakunde barruan dagoen G77k ordezkatzeko duela munduko biztanleen %60, planetako Barne Produktu Gordinaren %31,42, esportazioen %37.

G77+Txina bilkura burutu zen ekainaren 14-15ean Boliviako Santa Cruz hirian, munduko herrialde ez garatuaren mugimenduak mende erdi justu betetzen zuen egunetan. 1964ko ekainean sortu zuten 77 herrialdeko buruzagiek Suitzako Genevan. Sustatzaile nagusietako Ernesto *Che* Guevara izan omen zen, orduan Kubako Gobernuaren agintari. Lehen bilkura handia 1967an ospatu zuten Aljeria frantsesengandik askatu berrian. *Che* Guevararik gabe: gerrillara itzulia, urte hartan bertan galduko zuen bizia militarren eskutik... Bolivian hain justu.

Hasierako 77 herrialdeei geroztik 56 gehiago bildu zaizkie, 133ra heldu arte. Kideak mapan koloretzatuz gero ageri da munduaren hegoalde osoa dagoela ordezkaturik G77an: Mexikoz behealdeko Hego

Amerika osoa, Karibeko uharteak barne; Afrika osoa eta Asiatik Sobiet Batasunekoak izan ez diren guztiak, Txina barne. Europatik Bosnia-Herzegovina da kide bakarra, hasierako fundatzaile izan zen Jugoslavia apurtu zenetik geratu dena.

Hasieran zeuden batzuk gero atera egin dira G77tik, Europar Batasunean edo Ekonomia Lankidetzara eta Garapenerako Antolakundean (OCDE ingelesezko eta gaztelaniazko sigletan) sartu zirelako, esan nahi baita, herrialde kapitalista garatuaren klubetan: Mexiko, Hego Korea, Zelanda Berria, Zipre, Errumania...

1964an Sobiet Batasunaren eta AEBen artean espazio propioa bilatzen zuten herrialde ez lerrokatuen irudi nagusiak ziren Nehru Gandhi indiarra, Gamal Abdel Nasser egiptoarra, Josef Broz Tito jugoslaviarra, Kwame Nkrumah ghanatarra, Mao Zedong txinatarra... 2014an Boliviako Santa Cruzen nabarmendu dira, Evo Moralesen gain, Raul Castro, Nicolás Maduro, Rafael Correa, Jose Mugica, Cristina Fernandez... eta itsusi ematen duelako antolatzaileek diskrezioz erabili duten Robert Gabriel Mugabe.

Bolivia bezalako herrialde pobreak batentzako ausardi handia izan da neurri honetako antolakizunez

Boliviako lehendakariak zabalduko irudian Kubako Raul Castro, Boliviako Evo Morales, Ekuadorreko Rafael Correa eta Venezuelako Nicolás Maduro, Santa Cruz hirian G77+Txinak burutu biltzarraren azken ekitaldian. Castrok dei egin zuen Venezuela nazioarteko kapitalismoaren erasoetatik defenditzera: “Venezuela da gaur gure askatasunaren eta duintasunaren defentsaren abangoardia, kolpe gogorra litzateke hementxo prozesua gelditzea”. Corraek oihukatu zuen: “Gora Nazio Batuen Erakundea... Segurtasun Batzordea gabe!” Moralesek poza adierazi zuen biltzarraren adierazpean islatu zirelako boliviarr indigenen antzinako balioak: *Ama Sua* (ez izan lapurra), *Ama Llulla* (ez izan gezurtia), *Ama Quella* (ez izan ahula). “[Inken inperio garaiko] antzinako balio hauek berreskuratzeko baimenduko du gobernu gardenentzako parametroak ezartzea”, esan zuen Moralesek.

arduratzeari. Carlos Peñarandak eta Ernesto Peñarandak *Rebellion* gunean plazaratutako “G77+China, elementos críticos para el debate” analisia eman dute Bolivian bertan gailurrak piztutako kritiken berri, hainbeste konbidaturentzako prestaketa garestietan sartzea baino lehenagoko beharrak badaudela eta abar.

Morales lehendakariak, ordea, lehenetsi du Boliviaren garapen eredu berria nazioartean zabaltzea eta munduko agintariak erakartzeko ahalmena erakustea

Vivir Bien versus Txina

Gailurraren hasieran *Gara* egunkariaren *Gaur8* gehigarrian Katu Arkonadak azaldu zituen G77 barruan dauden bi bloke geopolitiko nagusiak. Alde batetik daude ALBA aliantza bolibartarrekoak: Kuba, Ekuador eta Venezuela, Bolivia beraz gain. Bestetik, BRICS taldea (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika) eta honen ingurukoak.

“BRICS blokeko herrialdeetan idatziz du Arkonadak— planetako populazioaren %42 inguru bizi da, eta bertako jardueraren ekonomia munduko barne produktu gordinaren %20tik gora izatera iristen da. Aipatu herrialde horiek erabakigarriak dira egun bizi dugun polo bakarreko mundutik polo anitzeko



mundura edo mundu multipolarre-
ra trantsizioa egiteko”.

Baina nabarmena da, ahaztu gabe BRICS talde barruan bertan ere erraldi batzuen eta besteen interesak oso dira ezberdinak direla, 133 herrialdeen aniztasuna askoz konplexuagoa da. Adibidetzat: 2005eko gailurrean Qatarreko emirrak sortu zuen G77ko herrialde txiroenei laguntzeko diruz funts bat... 133en artean diruz gainezka dabiltzanak ere badiren seinale.

“*Por un nuevo orden mundial para Vivir Bien*” ipini du Boliviak gailurra-
ren goiburuan. Evo Moralesek aurre-
ra begirako hamar lan ildo nagusi
zerrendatu zituen: garapen iraunko-
rra ama lurrarekin orekan, demokra-
zia birsortu eredu parte hartzaile eta

komunitarioan, uraren eta gizakia-
rentzako oinarritzkoak diren beste
oinarrizko eskubideak, ekonomia
bezala kultura eta jakintza deskoloni-
zatzea, elikadura burujabetzarekin
gosea desagertzea, mundu mailako
finantza arkitektura berria...

G77aren adierazpenak ez dira
bazkideentzako lotesleak, alde
horretatik zerikusi gutxi erabaki
zorrotzak hartzen diren beste gailur
batzuekin. Hala ere, Morales saiatu
da orain arte gehien bat asmoetan
eta eztabaida teknikoetan jardun
den erakundeari eduki politiko eta
pragmatikoagoak ematen.

Alde batetik, Nazio Batuen Era-
kundeak 2000. urtean ezarritako
Milurtekoaren Garapen Helburuak
eguneratzen, horiek berrikustea

egokituko baita 2015ean. *Vivir Bien*
kontzeptuaren inguruan biltzen
ahalegindu da garapen iraunkorraz
Rio de Janeiroko biltzarretik landu
dena, uztartuz klimaren aldaketa,
ekologia, pobrezia gaiztatzeko,
herrien eskubideak eta abar. Hego-
tik Hegoarako elkarlana indartu
beharra da azken deklarazioaren
beste ardatz nagusia.

Besterik izanen da hori nola gau-
zatzen den. G77 bertan daude, esa-
terako, munduko herrialde txirota-
ko lurrak berenganatzen ari diren
herrialdeetako batzuk, Txina bera
buru dela. Munduaren hegoaldeko
potentziek hegoaldeko herrialde
txikiei ezartzen dizkieten elkarlan
ereduak ez dira hain ezberdinak ipa-
rralde aberatsak aurretik ezarritako-
etatik. Nola gaiztatu kontraesana?


Iparraldeko herriekiko daukaten
borrokaz gain (emigranteentzako
hesiak, korporazioek hegoaldekoei
ezartzen dieten garapen eredu...),
hegoaldeko potentzien eta nazio
pobreen arteko harremana eztabai-
da berriak ari da pizten Boliviako
eta oro har hegoalde osoko ezker-
tiarren artean. Funtsean, Txinak
ezartzen dien garapen ereduak ez ote
da lehen Europak eta AEBek ezarri
zietenaren berdintsua?

Horretaz landa, Ekuadorreko
presidente Rafael Correaren oharta-
razi zuen: “Kontserbadoreen itzu-
lera ari dira antolatzen, nazio eta
nazioarte mailan ari da eskuina
koordinatzen (...) Horregatik
Amerikan ezkertiar eta
aurrerazaleok sekula
baino elkartuago eta
koordinatuago jokatu
behar dugu”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

Lehen rounda irabazi du monarkiak

ESPAINIAKO errege aldaketaren operazioak zer utzi du agerian? Hainbat kontu, baina nagusiki aldatetarekiko Espainiako botere politikoak duen beldurra eta Espainiako egoera instituzionala epe laburrera begira *lotua eta ondo lotua* uzteko beharra. Koroa Juan Carlos I.etik Felipe VI.era igaro da magia instituzional berezi horren bidez eta, beste behin ere, defizit demokratiko esanguratsuarekin. Espainiako Estatuko herritarren multzo oso ageriko batek eskatu du erreferenduma. Zenbatek? Ez dakigu, egia, baina egungo egonkortasunaren gotorlekutik ohiko argudio higitua jaurti dute behin eta berriz: herritarren egungo ordezkariak erabaki du. Esaldi totemak berdin balio du Espainiako Estatu buruaren hautaketarako, murrizketa zorrotzenak gauzatzeko, Konstituzioa finantza mandatarien aginduetara egokitze-ko edo Espainiako aurrezki kutxen sistema desagerrarazteko. Baina argudioak baditu ertz zorrotzak, bai sistemaren dorrean direnentzat zein berau hartu nahi dutenentzat.

Lehenek ezin dute ezkutatu argudioaren ahuldadea, horren ize-nean Espainiako gizartean ez lukeelako krisi politiko sakonik egon behar, teoriar ordezkarien gobernantza herritarren zilegitasunean oinarritzen baita; hau da, eskema horretan “egoera gogorra da, baina guk hautatu dugunez, eutsi egin behar” litzateke herritarren pentsamendu kolektibo nagusia. Baina ez da horrela, herritarrek ez dute uste egungo krisi sakona ekarri duten neurriek beraiek hautatutako erabakien bidez etorri denik, guztiz kontrara baizik, eta horregatik bizi da krisi politiko-instituzional sakona, estamentu guztietatik aitortzen den moduan. Alternatibaren aldekoen ezintasuna kontraesan handi batean

datza: herritarrek behin eta berriz hautatzen dituztela ezegonkortasuna eta krisia areagotzen dituzten alderdiak.

Behin eta berriz? Ez, Espainiako sistemaren zutoin diren PSOEren eta PPren boto galera hasi da eta hauek beldurtu egin dira. Eta jarraituko du? Ezin esan, baina adierazle askok diote sasoi bat itxi dela eta beste bat datorrela. Eta oraingoz egoera lotua dago, baina ez ondo lotua, batez ere arrazoi oso indartsu bategatik: krisiarekin gertatu den guztiarekin, herritarrek jadanik ez du egungo demokraziaren ordezkari-ritza sistema soil horretan sinesten. Hortik alternatibara jauzi handia dago, baina ez da helmugarik bide

Egoera lotuta dago, baina ez ondo lotuta

hasiera barik. PPK eta PSOEek berriz hartu dute herritarra inozotzat: gaizki eta makal, baina eztabaidaren muina desbideratu dute, indarra monarkia edo errepublika motan jarritz, eztabaidaren funtsa bien artean hautatu ahal izatearen ariketa demokratikoan dagoenean.

Operazio politiko eta mediatikoak balio izan die errege aldaketa gauzatzeko, baina ez beren estatu burua erabaki nahi dutenen herritarren multzo handi hori zentimetro bat erakartzeko. Aitzitik, izpiritu errepublikar eta burmuin monarkikoaren trikimailuak ez du jada inor engainatzen. Espero bezala, Felipe VI.ak eta sistemak samur irabazi dute lehen rounda, baina borrokak jarraitzen du eta badira adierazle asko pentsatzeko denborak eta egunerokotasunak ataka estuan jarriko dutela printze-printzesen mundu arrosa salgarri hori. Gizartea eta

pertsonarentzat jatea funtsezkoa da bizitzeko, baina libre bizitzeko zer jan erabakitzea da garrantzitsua.


KUTXABANKEN priorizatzearen eztabaida gori-gori dago eta geziak atzera aurrera dabilta haragi bila. Mamian sartu barik, bada azpimarratzea komeni den bi kontu. Batak badu zerikusirik legearekin eta besteak eztabaidaren subjektu nagusiekin.

Legeari begira, Xabier Sagredo eta Xabier Iturbek, hurrenez hurren BBK eta Kutxako lehendakariak, duela gutxi argitaratu dituzten bi artikulua mamitsutan adierazten denez, fundazio bihurtzea legeak behartutako operazioa da, ez dago ezer egiterik horren kontra. Ados, zilegi da, posizio bat da eta listo. Baina bada gauza oso harrigarria: artikuluen izpirituak adierazten du Espainiatik behartutako zerbait dela, aukeran balute haiek ez luketela horrela jokatu eta EAJren diskurtso publikoak –PP eta PSOEren desberdina da– bat egiten du posizio horrekin. Alabaina, ez aipatu bi artikuluetan ez EAJren argudioetan ez da ikusten lege horreko kritika zorrotzik; hau da, argi esatea “ez gaude ados baina behartzen gaituzte”, eta hori egin ezean, pentsa daiteke haiek ere, funtsean, ados daudela legeak dioenarekin.

Eztabaidaren subjektu nagusiei dagokienez, ezin da esan, EAJk bezala, ezker abertzalea dela gizartea aztoratzen ari dena. Hori ezker abertzaletik harago diren sektore zabalei muzin egitea da, ELA, Ezker Anitza, Podemos-Ahal Dugu eta beste eragile asko daudelako eztabaida horretan, eta akaso EH Bildu bera baino lehenagotik eta koherentzia handiagoz. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat

**A fuego negro
jatetxea**

2 lagunentzako afaria

Abuztuaren 31, 31
Donostia GIPUZKOA

www.afuegonegro.com

1

**San Telmo
Museoa**

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

2

**Inguru
Abentura**

Eskalada (1. maila)
4 lagunentzako bina saio

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

3

**EUREKA!
zientzia museoa**

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

4

Illimani

liburua opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2419. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Olatz Usabiaga Errazkin (Donostia)

SAN TELMO MUSEOA

- Juankar Bermejo Mateos (Laudio)
- Gotzon Garitaonandia Euskategia (Bermeo)
- Dioni Beraetxe Aranburu (Hernani)

BIXENTE AMEZTOY - ARGIA azalak

- Vanessa Aierdi Goitia (Zeberio)

INGURU ABENTURA zubi saltoa 2. maila

- Roberto Kerexeta Zulaika (Elgoibar)
- Bolintxu Aek Euskategia (Basauri)
- Jose Aierbe Mendizabal (Beasain)
- Pilar Otaegi Urruzola (Larraul)

KAUTA - Agerre - CDa

- Landaberri BHI Institutoa (Lasarte-Oria)
- Jokin Ginea Kortajarena (Galdakao)
- Imanol Arluziaga Esnal (Donostia)
- Izaro Sodupe Altuna (Azkoitia)
- Maria Dolores Uriarte Ballarena (Barakaldo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

ginea

argia





berdindu!

Lesbiana, gay, bisexual eta
transexualei arreta emateko zerbitzua

Servicio de atención a lesbianas,
gays, bisexuales y transexuales

Araba
Zapatería, 39 - bajo
01001 Vitoria-Gasteiz
945 257 077
berdindu.araba@aldarte.org

Bizkaia
Berastegui, 5 - 5º
dptos. 8 y 9º 48001 Bilbao
944 237 296
berdindu.bizkaia@aldarte.org

Gipuzkoa
Zabaleta, 47 - entresuelo A-B
20002 Donostia-San Sebastián
943 451 722
berdindu.gipuzkoa@gehitu.org

Zerbitzu ibiltaria: / Servicio itinerante:
C/ Benidorm Nº 1 Entreplanta izq-drch
48015 Bilbao
675 459 317
berdindu.ibiltaria@errespetuz.org

berdindu.eskolak@guztiok.org 647 976 001 / 653 721 725

berdindu.familiak@aldarte.org 944 23 72 96 / 665 73 44 28



berdindu!

Zerbitzuaren balorazioa / Valoración del servicio
Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz
berdindu@ej-gv.es

«PERSONA,
HELBURUA»

«COMPROMISO CON»
«LAS PERSONAS»

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO